



HONDARRIBIKO UDALA

Esptea.: 2019PLEN0013

Erref.: MLI / AEL

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIK
2019KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO
EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hemeretzi abenduaren hemeretzi, Udaletxe honetako Batzar Aretoan Udalbatza bildu da Txomin Sagarzazu Ancisar Jaun **Alkate-Udalburuaren** Lehendakartzapean eta ondoren aipatzen diren **Udalkideak** partaide direla:

Alkateordeak:

Juan María Altuna Muñoa jna.
María Serrano Olascoaga and.
Juan Luis Silanes Aguirre jna.
Gotzone Larrarte Campandegui and.
Gonzalo Carrión Insausti jna.

eta Zinegotziak:

Edurne Etxeburu Eguia and.
Arantzazu Rojo Gómez and.
Silvia Emazabel Felce and.
Igor Enparan Araneta jna.
Guadalupe Queiruga Oronoz and.
Estitxu Urtizberea Sorzabal and.
Aitzol Arroyo Tumas jna.
Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jna.
Maria Noemi Odriozola Pascual and.
Xabier Isasi Balanzategui jna.
Xabier Bengoetxea Erriondo jna.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa burutu dute hemezortziak eta hiruan ni, Maria Luisa Izquierdo Marculeta Andrea, Udaleko Idazkaria lagun nautelarik.

Bilkura hasirik, ondoko Zerrendan agertzen den putnu bakarra aztertu da:

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA
CELEBRADA POR EL EXCMO.
AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE
HONDARRIBIA EL DIA 19 DE DICIEMBRE
DE 2019**

En la Ciudad de Hondarribia a diecinueve de diciembre de dos mil diecinueve se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **Alcalde-Presidente** D. Txomin Sagarzazu Ancisar y con la asistencia de los/as **Tenientes de Alcalde Sres./as.:**

D. Juan María Altuna Muñoa
D^a María Serrano Olascoaga
D. Juan Luis Silanes Aguirre
D^a Gotzone Larrarte Campandegui
D. Gonzalo Carrión Insausti

y de los Concejales y Las Concejales Sres./as.:

D^a Edurne Etxeburu Eguia
D^a Arantzazu Rojo Gómez
D^a Silvia Emazabel Felce
D. Igor Enparan Araneta
D^a Guadalupe Queiruga Oronoz
D^a Estitxu Urtizberea Sorzabal
D. Aitzol Arroyo Tumas
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui.
D^a Maria Noemi Odriozola Pascual
D. Xabier Isasi Balanzategui
D. Xabier Bengoetxea Erriondo

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las dieciocho horas y tres minutos, asistidos/as de mí, la Secretaria, Dña. María Luisa Izquierdo Marculeta.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar el único punto del Orden del Día:



PUNTO BAKARRA.-ZALDUNBORDA GAINEKO MERKATARITZA PROIEKTUAREN BALIZKO GARAPENARI BURUZKO BALORAZIO, UDAL TALDE BAKOITZAREN JARRERA ETA, IZANGO BALITZ/BALIRA, PROPOSAMENAREN/ PROPOSAMENEN BOZKETA

Alkate jaunak hartu du hitza Amuitz Hondarribiko Merkataritza Elkarteak eta Zaldunborda Gelditu Plataformak Udaltzatzen parte hartzeko eskaera egin dutela azalduz. Goizean bozeramaleak bildu ondoren, Udaltzatzen hasieran aipatutako elkarte eta plataformari hitza ematea adostu dela adierazi du, beti egiten den eran.

Halaxe, legea jarraituz, ezohiko bilkuran etena egingo dutela adierazi du, interbentzioei bost minutuz hitz egiteko aukera emango zaiela eta etena amaituta, berriz ere Udaltzatzen ekingo zaiola.

Puntu bakarreko Udaltzatza honetan talde bakoitzak hamabost minutu izango dituela aurreratu du eta ondoren, erreplikarako txanda eta proposamenak aurkezteko aukera izango dela esan du.

Jarraian, Udaltzatza eten da 18:06an Amuitz Hondarribiko Merkataritza Elkartearen ordezkari andreaki eta ondoren Zaldunborda Gelditu Plataformako ordezkari hitza emateko.

Bilkurari 18:20an ekin zaio berriz ere.

Ondoren, Alkate jaunak udal talde bakoitzak bere azalpenak emateko ordu laurdena izango duela adierazi du.

Hasteko, Enparan jaunak hartu du txanda eta gerturatu diren guztiei eskerrak eman dizkie, azken asteko berriek gaiaren irakurketa aldatzera behartu dituztela azalduz. Egoera irauli egin dela esan du Enparan jaunak eta azken asteko informazioaren arabera, txosten tekniko 2019ko abenduaren 3an sinatu zela gogorarazi du eta bai txostenaren berri eta baita dekretuaren berri ere azken astean izan dutela adierazi du. Balorazioa egiteko garaian, Zaldunbordaren auziak ia 4 urteko bidea egin duela gogorarazi du. Gaia Hondarribiko Hirigintza Antolamendurako Plan

PUNTO ÚNICO.- VALORACIÓN, POSICIÓN DE CADA GRUPO MUNICIPAL Y VOTACIÓN DE PROPUESTA O PROPUESTAS SI LAS HUBIERE, EN RELACIÓN AL POSIBLE DESARROLLO DE PROYECTO COMERCIAL A LLEVAR A CABO EN ZALDUNBORDA GAINA.

Toma la palabra el Sr. Alcalde para señalar que la Asociación de Comerciantes de Hondarribia Amuitz y la Plataforma Zaldunborda Gelditu han solicitado su participación en el Pleno. Tras la reunión de los portavoces por la mañana, indica que se ha acordado dar la palabra, como siempre se hace, a la citada asociación y plataforma al inicio de la sesión plenaria.

Así, siguiendo la normativa, indica que se interrumpirá la sesión extraordinaria, que se cederá la palabra durante cinco minutos a las intervenciones y que una vez finalizada la interrupción, se retomará el Pleno.

Adelanta que en este Pleno de un único punto cada grupo dispondrá de quince minutos y a continuación, se dará turno de réplica y de presentación de propuestas.

A continuación, se interrumpe el Pleno a las 18:06 horas para ceder la palabra a la representante de la Asociación de Comerciantes de Hondarribia, Amuitz, y a continuación al representante de la Plataforma Zaldunborda Gelditu.

Se reinicia la sesión a las 18:20 horas.

A continuación, señala el Sr. Alcalde que cada grupo municipal dispondrá de un cuarto de hora para dar sus explicaciones.

Para empezar, toma la palabra el Sr. Enparan y da las gracias a todos los y las asistentes, explicándoles que las noticias de la última semana les han obligado a cambiar la lectura del tema. Comenta el Sr. Enparan que la situación ha dado un vuelco y según la información de la última semana, recuerda que el informe técnico se firmó el 3 de diciembre de 2019, y que tanto el informe como el decreto los han conocido en la última semana. En cuanto a la valoración, recuerda que el caso de Zaldunborda tiene ya un recorrido de casi



Orokorrekin ez zela hasi esan du, baizik eta 2016an Hondarribia Lantzen SA enpresa publikoan hasi zela planaren eztabaida. Lantzenen bidez egitea Alkate jaunak erabaki zuela esan du, Udalak berezkoak dituen bermeak saiheste aldera eta txosten batean horrela jasota dagoela adierazi du. Zaldunbordarena ez dela ohiko prozedura erantsi du. Horregatik, Udalak eduki beharko lituzkeen berme, publikotasun eta gardentasuna eduki beharko lituzkeela esan du eta hori guztia saihestu egin dela, nahita gainera.

Enparan jaunak 2017an HAPOa onartzeko eztabaidan desadostasuna sortu zuen puntuetako bat Zaldunborda Gaineko birkalifikazioa izan zela adierazi du. Gai hori behar bezala ez itxitzeak ondorio desagokiak ekarri dituela adierazi du eta birkalifikatze hau epaitegietan dagoela gogorarazi du. Dendartean-Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak jarritako helegitea Auzitegi Gorenean tramitera onartua dagoela esan du eta horrek zalantza juridikoa sortu duela. Auzitegi Gorenak birkalifikazioa legez kanpokoa dela ebatziko balu, zer gertatuko litzatekeen galdetu du eta orain arte egindakoa nola zuzenduko litzatekeen. Atzera egin behar izateak Udalari eta herriari ze eragin ekarriko litzatekeen galdetu du. Galdera hauek erantzun gabe daudela esan du eta erantzutea interesgarria litzatekeela adierazi du.

HAPOa EAJk soilik onartu zuela gogorarazi du eta prozesu osoan, Hondarribiko EAJ bakarrik izan dela Zaldunbordako outletaren alde egon den talde bakarra. Enparan jaunak EAJ bakarrik dagoela esan du eta bakarrik egon dela, inolako adostasunik bilatu ez duelako.

Gai horrekin 2016. urte hasieratik daudela gogorarazi du eta lehenengo eztabaida publikoa lehenengoz 2019ko abenduan egiten ari direla; Hondarribiko Udalean Zaldunbordaz eztabaidatzen den lehen aldia dela, alegia. Hain gai garrantzitsua gizarteratu beharra dagoelako ezohiko batzarra eskatu dutela arrazoitu du Enparan jaunak eta oposizioko zinegotzi guztiek eskatu dutela argi utzi nahi izan du, Gobernuak orain arte egin nahi izan ez duelako. EAJ proiektua aurrera ateratzen saiatu dela erantsi du Enparan jaunak, baina legitimitatea bermatu gabe. Gobernu taldeak gehiengo

4 años. Manifiesta que el tema no se inició con el Plan General de Ordenación Urbana de Hondarribia, sino que el debate del plan se inició en 2016 en la empresa pública Hondarribia Lantzen, S.A. Menciona que el Sr. Alcalde decidió hacerlo a través de Hondarribia Lantzen para evitar las garantías propias del Ayuntamiento y que así consta en un informe. Añade que el de Zaldunborda no es un procedimiento habitual. Por ello, dice que el Ayuntamiento debería tener las garantías, publicidad y transparencia que debería tener y que todo eso se ha evitado, además de manera intencionada.

Señala el Sr. Enparan que uno de los puntos que suscitó la discrepancia en el debate para la aprobación del PGOU en 2017 fue la recalificación del ámbito Zaldunborda Gaina. Manifiesta que el cierre indebido de este asunto ha tenido consecuencias inadecuadas y recuerda que esta recalificación está en los juzgados. Añade que el recurso interpuesto por la Asociación de Comerciantes de Gipuzkoa Dendartean está admitido a trámite ante el Tribunal Supremo, lo que ha generado dudas jurídicas. En caso de que el Tribunal Supremo dictamine que la recalificación es ilegal, se pregunta qué pasaría y cómo se corregiría lo hecho hasta ahora. Pregunta qué consecuencias tendría para el Ayuntamiento y para el pueblo tener que dar marcha atrás. Señala que estas preguntas no están respondidas y que sería interesante responderlas.

Recuerda que el PGOU fue aprobado solamente por el PNV y que, en todo el proceso, el PNV de Hondarribia ha sido el único grupo que apoya el outlet de Zaldunborda. Indica el Sr. Enparan que el PNV está solo y que ha estado solo porque no ha buscado ningún consenso.

Recuerda que están con este tema desde principios de 2016 y que el primer debate público se está celebrando por primera vez en diciembre de 2019; que es esta la primera vez que se debate sobre Zaldunborda en el Ayuntamiento de Hondarribia. Razona el Sr. Enparan que han pedido una asamblea extraordinaria porque hay que socializar un tema tan importante y quiere dejar claro que la han pedido todos los concejales de la oposición porque el Gobierno no ha querido hacerlo hasta ahora. Añade el Sr. Enparan que el PNV ha



osoa duela adierazi du eta azken hauteskundeetan %45a lortu zuela, beste hiru taldeek bi puntu gehiago lortu zituzten arren, hots, %47. Hala ere, oposizioko kideen iritzirik ez dela kontuan hartu nabarmendu du.

EAJk bere erabakiak bere kabuz hartu dituela esanez jarraitu du eta horrek dagoeneko Hondarribiko Udalarentzat kostu bat izan duela, handia gainera, 2.000.000 eurokoa. Zaldunbordako eremuaren erosketaren kostu ekonomikoa horixe dela esan du.

Alkate jaunari zuzendu zaio jarraian Enparan jauna eta ekainaren 26an Zaldunbordako Plan Partzialaren hasierako onarpenaren dekretua egun horretan sinatu zuela gogorarazi dio, hurrengo egunean Eusko Legebiltzarrak merkatalgune handiak mugatzeko legea onartu behar zuelako. Legeari izkin egiteko, dekretua horregatik sinatu zuela aurpegiratu dio Enparan jaunak Alkate jaunari. Antxeta irratiko elkarrizketan Alkate jaunak erabakia estetikoa ez zela izan aitortu zuela gogorarazi du Enparan jaunak, eta estetikoa ez izateaz gain, etikoa ere ez zela izan erantsi du. Legea hurrengo egunean onartu zutela adierazi du, baina 2015ean Lege Biltzarrean are zorrotzagoa zen Lurralde Plan Sektoriala adostu zutela esan du, nahiz eta epaitegiek indargabetu eta eztabaida urte batzuk luzatu.

Enparan jaunak bere interbentzioarekin jarraitu du esanez duela 12 urte legebiltzarkideek, tartean EAJk, merkatalgune handi hauek mugatu behar zituztela bazekitela. Ekainaren 27an onartutako lege berriak Europar Batasuneko 2006/123 Zuzentarauak jasotzen dituen gomendioak jasotzen dituela esan du, hau da, duela 13 urteko gomendioak, Higertoki enpresak proiektua aurkeztu baino 11 urte lehenagoak. Europak esaten duenaren arabera, berriz, merkataritza gune handiek merkataritza gune txikiak suntsitzen dituztela adierazi du Enparan jaunak; hiritik kanpoko gune komertzialak hirigintza eredu jasangaitza direla, alegia. Europar Batasuna Jaizkibel mendia kontserbatzeko gune berezia dela dioela erantsi du eta Zaldunborda Jaizkibel-Aiako Harria korridore ekologikoan dagoela.

intentado sacar adelante el proyecto, pero sin garantizar la legitimidad. Señala que el equipo de gobierno tiene mayoría absoluta y que en las últimas elecciones obtuvo el 45%, aunque los otros tres grupos obtuvieron dos puntos más, el 47%. Sin embargo, insiste en que no se ha tenido en cuenta la opinión de los miembros de la oposición.

Continúa señalando que el PNV ha tomado sus decisiones por su cuenta y que eso ya ha tenido un coste para el Ayuntamiento de Hondarribia, alto además, de 2.000.000 euros. Añade que ese es el coste económico de la compra del área de Zaldunborda.

Se dirige al Sr. Alcalde para recordarle que el día 26 de junio firmó el Decreto de aprobación inicial del Plan Parcial de Zaldunborda, ya que al día siguiente el Parlamento Vasco iba a aprobar la ley de delimitación de grandes centros comerciales. Para esquivar la ley, el Sr Enparan reprocha al Sr Alcalde que firmó el decreto por eso. Recuerda el Sr. Enparan que en la entrevista realizada en Antxeta Irratia el Sr. Alcalde reconoció que la decisión no fue estética y añade que no fue ni estética ni ética. Señala que la ley fue aprobada al día siguiente, pero que en 2015 en el Parlamento se acordó un Plan Territorial Sectorial aún más exigente, aunque los tribunales lo derogaron y el debate se prolongó durante algunos años.

Continúa con su intervención el Sr. Enparan señalando que hace 12 años los parlamentarios, entre ellos el PNV, sabían que iban a limitar estos grandes centros comerciales. Manifiesta que la nueva ley aprobada el 27 de junio recoge las recomendaciones de la Directiva 2006/123 de la Unión Europea, es decir, las recomendaciones de hace 13 años, 11 años antes de que la empresa Higertoki presentara el proyecto. Señala el Sr. Enparan que Europa dice que los grandes centros comerciales destruyen los pequeños centros comerciales, que los centros comerciales fuera de la ciudad son un modelo urbanístico insostenible. Añade que la Unión Europea dice que el monte Jaizkibel es un punto especial de conservación y que Zaldunborda se encuentra en el corredor ecológico Jaizkibel-Aiako Harria.



Enparan jaunak Alkate jaunak 2019ko ekainaren 26an sinaturiko dekretua zergatik sinatu zuen ez dakiela esan du, egoskorkeriagatik edo agian presioengatik. Hala ere, Udala dekretu bidez ezin goberna daitekeela erantsi du, are gutxiago halako gaia mahai gainean dagoenean eta honenbestez, denek akats honetatik ikastea espero duela adierazi du Enparan jaunak.

Alkate jaunak erabakia legezkoa izan zela esan zuela gogorarazi du Enparan jaunak; hala ere, dekretua sinatu aurretik zalantzak zeuden bezala, dekretua sinatu ondoren Higertoki enpresak Zaldunborda Gainean legea behin eta berriz urratu duela gogorarazi du. Legea urratu duela eta legea urratzen utzi zaiola gainera. 100.000 metro karratuko lur eremua suntsizetik hasita, baimenik gabeko eraikina altxatzera arte. Bi kasu horietan, behintzat, dekretuz Alkateak berak baimenik gabe egindako lanak zirela aitortu zuela gogorarazi du Enparan jaunak, hau da, hori guztia Abotsanitz udal taldeak salatu gabe. Higertokiri Udaletik inolako mugarik edo kontrolik ez zaiola ezarri salatu du eta ekainaren 26tik aurrera Higertoki enpresak Zaldunborda Gainean nahi duena egin duela. Ekainaren 26ko dekretuak udal jarduera baldintzatu duela esan du; legealdia baldintzatu duela erantsi du eta ez gai honetan soilik, sekulako higadura eragin duela gehitu du, Abotsanitz udal taldean eta Udaleko gainontzeko kideengan ere bai. Asko galdu dela esan du eta halakorik ez zuela gertatu behar adierazi du Enparan jaunak. Dena den, honek guztiak zerbait positiboa ere utzi duela esan du; ekainaren 26ko dekretuak herria piztu egin duela, alegia. Merkataria suspertu dira, herri dinamika aktibatu da eta herrigintza bultzatu da. Aurrera begira bermea horixe izango dela esan du Enparan jaunak; Zaldunborda Gainean gertatuko dena hemendik aurrera herri dinamikek bermatuko dutela erantsi du.

Oposizioko hiru alderdiek gai honi buruz mintzatzeko Udaltza bilkura eskatu zutenean, gai askoz hitz egiteko asmoa zutela gehitu du Enparan jaunak; esaterako, herri garapenaz, tokiko merkataritaz, ingurumenaz, mugikortasunaz, langile ikuspegiak, jasagarritasunaz... Hala ere, komunikabideei esker

Señala el Sr. Enparan que no sabe por qué firmó el Sr. Alcalde el decreto firmado el 26 de junio de 2019, por obstinación o quizás por presiones. Sin embargo, añade que el Ayuntamiento no puede gobernarse por decreto, y mucho menos cuando está sobre la mesa un tema de este tipo, por lo que el Sr. Enparan espera que todos aprendan de este error.

Recuerda el Sr. Enparan que el Sr. Alcalde dijo que la decisión había sido legal, sin embargo, de igual manera en la que existían dudas antes de la firma del decreto, recuerda que tras la firma del decreto la empresa Higertoki ha incumplido reiteradamente la ley en el ámbito Zaldunborda Gaina. Que ha incumplido la ley y además se le ha permitido vulnerar la ley. Desde la destrucción de un terreno de 100.000 metros cuadrados hasta el levantamiento de un edificio no autorizado. En ambos casos, cuando menos, recuerda el Sr. Enparan que el propio Alcalde por decreto reconoció que se trataba de trabajos realizados, sin autorización, es decir, todo ello sin la denuncia del grupo municipal Abotsanitz. Pone de manifiesto que a Higertoki no se le ha impuesto ninguna limitación o control desde el Ayuntamiento y que a partir del 26 de junio la empresa Higertoki ha hecho lo que ha querido en el ámbito Zaldunborda Gaina. Añade que el decreto de 26 de junio ha condicionado la actividad municipal; ha condicionado la legislatura, y no sólo en este tema, sino que además ha provocado un gran desgaste en el grupo municipal Abotsanitz y en el resto de miembros del Ayuntamiento. Indica el Sr. Enparan que se ha perdido mucho y que no debería haber ocurrido. No obstante, dice que todo esto también ha dejado algo positivo, que es que el decreto del 26 de junio ha reanimado a la ciudadanía. Se han reactivado los comerciantes, se ha activado la dinámica popular y se ha impulsado la iniciativa local. Señala el Sr. Enparan que esa será la garantía de cara al futuro; añade que a partir de ahora lo que ocurra en Zaldunborda Gaina lo garantizarán las dinámicas populares.

Manifiesta el Sr. Enparan que cuando los tres partidos de la oposición solicitaron la celebración de un Pleno para hablar sobre este tema, tenían intención de hablar de muchas cuestiones, como el desarrollo del pueblo, el comercio local, el medio ambiente, la movilidad, la perspectiva de



iritsitako azken albisteek irakurketa aldatzera behartu dituztela esan du. Horren berri ere zuzenean ez zaiela eman adierazi du Enparan jaunak.

Higertokik aurkeztutako Plan Partzialari ere ezezkoa eman zaiola erantsi du eta hori herriaren erantzunari esker izan dela ziur dagoela adierazi du. Udalak legea betetzeaz gain, legea betearazi behar duela esaten dela azaldu du, baita udal Gobernutik legea bete eta betearazi dela ere. Hala ere, Higertokik legea urratu duela esan du eta birritan gutxienez. Horregatik gertuko jarraipena egitea ezinbestekoa dela esan du Enparan jaunak, Udalaren aldetik eta baita herritarren ekimenetik ere.

Zaldunborda Gelditu plataformak indarrak batzen eta lanean jarraitu behar duelakoan dago Enparan jauna. Oraindik ere arrisku asko ikusten ditu Abotsanitz udal taldeak, Zaldunborda eremuan oraindik ere merkataritza proiektua gauza daitekeelako, nahiz eta proposamen berria orain merkatalgune handien lege mugak errespetatuz egin beharko lukeen Higertoki enpresak. Zaldunbordako eremua Jaizkibel-Aiako Harria korridore ekologikoaren barnean dagoela esan du berriz ere Enparan jaunak eta eremu horrek oraindik arriskuan jarraitzen duela esan du. Eremu hori babestea ezinbestekotzat jotzen dute eta jardun horretan ariko direla esan du. Lur eremua Higertoki enpresarena dela esan du eta enpresak inbertsio handia egin duela kontuan hartuz, bere proiektu gauzatzeari uko hain erraz ez diola egingo. Hortaz, kontrol estua egingo beharko zaiola gaiari etorkizunean ere.

Azkenik, komunikabideetan irakurri ahal izan denez, Espainiako Gorteetan saltoki handien legerari helegitea jartzeko asmoa egon litekeela adierazi du Enparan jaunak. Horrek proiektuak izan ditzakeen mugei zuzenean eragin diezaiokeela ere erantsi du.

Abotsanitz udal taldetik, ezinbestekotzat jotzen dutela esan du etorkizunean urrats batzuk ematea. Modu garden eta publikoan zein eredu garatu nahi den adostu beharko dela adierazi du Enparan jaunak.

trabajadores/as, la sostenibilidad... Sin embargo, las últimas noticias llegadas gracias a los medios de comunicación les han obligado a cambiar la lectura. Señala el Sr. Enparan que sobre esto tampoco se les ha informado directamente.

Añade que también se ha denegado el Plan Parcial presentado por Higertoki y que está convencido de que ha sido gracias a la respuesta popular. Indica que se dice que el Ayuntamiento, además de cumplir la ley, tiene que hacerla cumplir, así como que desde el Gobierno municipal se ha cumplido y se ha hecho cumplir la ley. Sin embargo, asegura que Higertoki ha incumplido la ley al menos en dos ocasiones. Por ello, indica el Sr. Enparan que es imprescindible hacer un seguimiento cercano por parte del Ayuntamiento y también por la iniciativa ciudadana.

El Sr. Enparan cree que la plataforma Zaldunborda Gelditu debe seguir uniendo fuerzas y trabajando. El grupo municipal Abotsanitz sigue viendo muchos riesgos, ya que en la zona de Zaldunborda todavía se puede llevar a cabo el proyecto comercial, aunque la nueva propuesta debería hacerse ahora respetando los límites de la ley de grandes centros comerciales por parte de la empresa Higertoki. El Sr. Enparan reitera que la zona de Zaldunborda se encuentra dentro del corredor ecológico Jaizkibel-Aiako Harria y que esta zona sigue estando en peligro. Consideran imprescindible la protección de este ámbito y dicen que van a estar en esa actuación. Manifiesta el Sr. Enparan que el terreno es de la empresa Higertoki y que teniendo en cuenta que la misma ha realizado una gran inversión, no va a renunciar tan fácilmente a la ejecución de su proyecto. Por lo tanto, considera que habrá que hacer un control estrecho del tema también en el futuro.

Por último, tal y como se ha podido leer en los medios de comunicación, señala el Sr. Enparan que podría haber intención de recurrir la ley de grandes superficies en las Cortes españolas. Añade asimismo que esto puede afectar directamente a las limitaciones que pueda tener el proyecto.

Indica que el grupo municipal Abotsanitz considera imprescindible dar algunos pasos en el futuro. Señala el Sr. Enparan que habrá que acordar qué modelo se quiere desarrollar de forma



Bizitza duen herria nahi dutela erantsi du; bertan ekoitzi eta bertan lan egin. Herri jasangarria izatekotan, ardatz honen inguruan lan egin beharko dela aurreratu du eta herriko merkataritza indartu nahi bada, proposamenak herriko merkatariekin adostu beharko dituztela adierazi du. Mendiari eta naturguneari babesa eman beharko litzaiokeela adierazi du, korridore ekologikoari berez beharko lukeen babes maila onartuz eta 2019an Udalak, suntsitutako zuhaitz eta landaredia berreskuratzeko, neurriak hartuz, besteak beste.

Jarraian, Alvarez jaunak hartu du hitza eta bertaratutakoei eskerrak eman dizkie etortzeagatik. Bere ikuspuntutik, esan du makro outletaren proiektua ez dela etorkizuneko proiektua, eta ez dela zentzuzko elementua. Outlet eredu gaur egun merkataritza eredu bezala dagoen filosofiaren antitesia dela esan du halaber. Azaldu du Europan ere landu dela gai hori, eta horren ondorio dela Gobernuaren azken dekretua. Dekretu horrek iraunkortasunerako, hurbileko merkataritzarako eta abarrerako jarraibideak ezartzen ditu. Adierazi du Eusko Legebiltzarrak eta oposizioko indar guztiek akordioarekin hartu duten jarrera une honetan Zaldunbordak planteatzen duenaren antitesia dela.

Lehenik eta behin, Alvarez jaunak azterketa txiki bat egin du, eta azaldu du proiektuaren azalera 69.000 m²-koa dela, 38.000 m² eraikigarrikoa, eta azken dekretuaren azken proposamenean 52.000 m² erabilgarri agertzen zirela. Adierazi du halaber, horrez gain Oteic-en azterlan bat ere badagoela eta bertan 18.000 m² aipatzen direla, urtean 5 milioi bisitari, 1.200 aparkaleku, 100 lokal komertzial eta 2.000 lanpostu.

Bigarrenik, Oteic-en txostenak zer dioten azaldu du, Europan 160 outlet daudela eta 50 baino ez direla funtzionatzen dutenak. Gaineratu du txostenak esaten duela halaber enplegua sortzeko potentzialtasunari buruz egin diren gogoetek egokiak diruditela, betiere ekonomia eta finantza baldintzak betetzen badira. Alvarez jaunak adierazi du Oteic-en txostenak esaten duela zenbat lanpostu sortuko diren, baina ez duela esaten zenbat suntsituko diren, eta hori izan zela esleipena egin zenean inoiz erantzun ez zen galdera.

transparente y pública. Añade que quieren un pueblo con vida; producir y trabajar en él. Para que sea un municipio sostenible, adelanta que habrá que trabajar en torno a este eje y señala que si se quiere potenciar el comercio local, las propuestas deberán ser consensuadas con los comerciantes locales. Manifiesta que habría que proteger el monte y el espacio natural, dando al corredor ecológico el nivel de protección que se le debe dar y tomando medidas por el Ayuntamiento para recuperar el arbolado y la vegetación destruida en 2019, entre otras cosas.

A continuación, toma la palabra el Sr Alvarez y agradece a todos/as las/los presentes su asistencia. Desde su punto de vista, dice que el proyecto de macro outlet no es un proyecto de futuro y considera que no es un elemento razonable. Añade que el modelo de outlet es la antítesis de la propia filosofía que existe actualmente como modelo de comercio. Explica que incluso en Europa este tema se ha madurado y que incluso consecuencia de ello es el último decreto del Gobierno, el cual establece unas pautas de sostenibilidad, de comercio de cercanía, etc. Dice que la postura que ha adoptado el Parlamento Vasco y todas las fuerzas de la oposición con el acuerdo es la antítesis de lo que plantea en estos momentos Zaldunborda.

En primer lugar, el Sr Alvarez realiza un pequeño análisis y explica que la superficie del proyecto es de 69.000 m², 38.000 m² edificables y que en la última propuesta del último decreto aparecían 52.000 m² útiles. Añade que también hay un estudio de Oteic y que en él se hablaba de 18.000 m², 5 millones de visitantes al año, 1.200 plazas de aparcamiento, 100 locales comerciales y 2.000 puestos de trabajo.

En segundo lugar, explica lo que dice el informe de Oteic, el cual recoge que en Europa existen 160 outlets y sólo funcionan 50. Añade que el informe también dice que las consideraciones que se hacen sobre la potencialidad de generación de empleo parecen adecuadas, siempre y cuando se den las condiciones económico-financieras. El Sr Alvarez dice que el informe de Oteic dice cuántos empleos se van a crear, pero que no dice cuántos se van a destruir y que esa fue la pregunta a la que nunca se dio contestación cuando se hizo la adjudicación.



Alvarez jaunaren arabera, Oteic-en txostenak ez du aintzat hartzen ingurunearen egokitasuna, bermea eta helburuen betetzea. Ingurunea esaten duenean Jaizkibelez eta errepideen eragin guztiez ari dela esan du.

Jarraian, Merkataritza Establezimendu Handien Lurralde Antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legea aipatu, honako hau dioena: "*(...) hiri ingurunea babesteak legitimatu egiten du merkataritza jarduerak modu desberdinean tratatzea zer motatakoak diren kontuan izanik; alegia, salgai handi eta erosketa esporadikoko establezimendu komertzialak hiriguneen kanpoaldera zuzentzea lehentasunez, eta establezimendu tradizionalak edo/eta ohiko erosketakoak, berriz, biztanleguneetan finka daitezten lehenestea*".

Adierazi du lurralde eta hiri garapen jasangarriaren printzipioan oinarrituta garatzen direla 2019ko ekainaren 27ko Legearen esparru juridikoa eta merkataritza gune handien lurralde betebeharra. Adierazi du halaber garaiekin bat datorrela lege hori, eta bertan garapen iraunkorraz, gizarte kohesioaz, hiri sarea lortzeaz, kontsumitzaileak babesteaz eta abarrez hitz egiten dela. Adierazi du hiri ingurunea babesteko bizitegi eta merkataritza jardueren arteko hurbiltasuna lehenesten duen legea dela.

Zaldunbordari dagokionez, esan du sarbideekin, bide sarearen erabileraren gaineko eraginekin, aireko zortasunekin eta abarrekin lotutako alderdiak ezagutzea gustatuko litzaiokeela, eta gogorarazi du errepideen plana ez dagoela oraindik diseinatua. Adierazi du halaber, sozialistek ez dutela ez zuzena ez komenigarria ikusten ekainaren 26ko Dekretuaren bidez Gobernu Taldeak nola onartu zuen Zaldunbordako Plan Partziala, Eusko Legebiltzarrak Azalera Handien Legea onartu baino 24 ordu lehenago.

Jarraian, lehen aipatutako Dekretuko zenbait gai aipatu ditu, eta adierazi du Dekretu anbigua dela, azalera handiei buruzko Legearen onarpena indarrean sartu baino egun bat lehenago eman zena, eta, bitxia bada ere, aurretik ez zela inolako jarraipen batzorderik egin. Adierazi du halaber, baldintzatzaile handiko dekretua dela, eta Plan Partziala hainbat baldintzarekin onartzen zuela. Bere buruari galdetzen dio zergatik balio gabetu den proiektua abenduaren

Según el Sr Alvarez, el informe de Oteic tampoco valora la adecuación del entorno, la garantía y el cumplimiento de los objetivos. Dice que cuando se refiere al entorno se refiere a Jaizkibel y a todas las afecciones de carreteras.

A continuación menciona la Ley 10/2019, de 27 de junio, de Ordenación Territorial de Grandes Establecimientos Comerciales la cual dice que "*(...) la protección del entorno urbano legitima el diferente tratamiento de la implantación de una actividad comercial de mercancía voluminosa y compra esporádica, dirigiéndola preferentemente a la periferia de los núcleos urbanos, con respecto a la de la actividad comercial más tradicional y frecuente, de implantación preferente en los núcleos de población*".

Sobre la base del principio del desarrollo territorial y urbano sostenible, dice que se desarrolla el marco jurídico y obligación territorial de grandes establecimientos comerciales de la Ley de 27 de junio de 2019. Añade que la citada Ley es acorde a los tiempos y que en ella se habla de desarrollo sostenible, cohesión social, consecución del tejido urbano, protección de las personas consumidoras, etc. explica que se trata de una Ley que prioriza la proximidad entre la actividad residencial y comercial para la protección del entorno urbano.

En relación a Zaldunborda, añade que le gustaría conocer los diferentes aspectos relacionados con los accesos, los efectos sobre el uso de la red viaria, servidumbres aeronáuticas, etc. Recuerda que el plan de carreteras no está aún diseñado y añade que los socialistas no ven ni correcto ni conveniente cómo se hizo la aprobación por Decreto de 26 de junio del Plan Parcial de Zaldunborda por parte del Equipo de Gobierno, 24 horas antes de que el Parlamento Vasco aprobara la Ley de Grandes Superficies.

A continuación, trata sobre ciertas cuestiones del Decreto antes mencionado, y dice que se trata de un Decreto ambiguo que se dictó un día antes de que entrara en vigor la aprobación de la Ley de Grandes Superficies y que curiosamente no se hizo antes ninguna comisión de seguimiento. Añade que es un Decreto de grandes condicionantes que aprobaba el Plan Parcial con condiciones. Se pregunta por qué se ha anulado el proyecto con fecha 3 de diciembre y



3an, eta gogorarazi du teknikari andreak ebazpena eten egin duela, ikusita baldintzatzaileak ez direla bete.

Alvarez jaunak gogorarazi du zigilatzeke mozketan egin behar zela eta baimenik gabe egin zela. Azaldu duenez, Hirigintzako langileak bertaratu ziren eta hala izan zela egiaztatu ahal izan zuten. Era berean, esan du Higertoki sustatzaileak Udalean eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailean zigilatzeaz aurkeztutako dokumentazioak desberdintasun batzuk zituela. Esan du halaber proiektu honen onurak saldu nahi direla, lurra deskontaminatzeko aukera dela eta Higertoki sustatzailearen kontura izango dela argudiatuta, Udalari gastu hori kenduta. Bere esanetan, PSE-EE-PSOEek osoko bilkura honen aurretik eskatu zuen jarduera zuzentzeko proiektuei buruzko horrelako erabakiak batzorde batean lantzeko, gardentasun handiz jokatzeko eta eztabaida egiteko. Adierazi du halaber espero duela egingo diren hurrengo urratsak orain arte egin denaz bestelako gardentasunez eta moldez egitea.

Bere interbentzioarekin amaitzeko, Alvarez jaunak dio merkataritza tradizionalaren eta hurbilekoaren aldeko apustua egin behar dela; gustuko dutena hiri kohesionatuak direla, eta ez harrizko eta kartoizko agertokiak, eta Merkataritza Establezimendu Handien Lurralde Antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legeak jasotzen duenaren antzera pentsatzen dutela, hau da, horrelako tamaina handiko proiektuak ingurumenaren eta oreka jasangarriaren kalterako direla merkataritza eta hurbileko ekonomia hondatzen dituztela, eta lan prekarietatea areagotzen dutela.

Jarraian, Bengoetxea jaunak hartu du hitza bertaratutako guztiei eskerrak emanez eta aurreko astean herrian Iker Casanova jauna izan zela gogoraraziz, baita Casanova jaunak komertzio txikiei buruz zerbait badakiela esanez ere. Hori dela eta, hark egindako zenbait hausnarketa zerrendatu ditu:

1.-Zaldunborda bezalako makro komertzio batek duen eragin eremua ehunka kilometrotara iristen dela eta milioika pertsona erakarri behar dituela errentagarria izateko.

recuerda que la Sra Técnica ha suspendido la resolución a la vista de que los condicionantes no se han resuelto.

El Sr Alvarez recuerda que para el sellado había que llevar a cabo una tala y que se hizo sin licencia. Explica que los trabajadores de Urbanismo se personaron en la zona y que pudieron comprobar que fue así. También dice que la documentación relativa al sellado presentada por la promotora Higertoki ante el Ayuntamiento y ante el Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco presentaba algunas diferencias. Dice que lo que se intenta es vender los beneficios de este proyecto con el argumento de que es una oportunidad de descontaminación del terreno y que será a cuenta de la promotora Higertoki, librando al Ayuntamiento de este gasto. Dice que el PSE-EE-PSOE ya había solicitado con anterioridad a este pleno que este tipo de decisiones sobre proyectos de subsanación de actividad se abordara desde una comisión para una gran transparencia y debate. Añade que se espera que los próximos pasos que se vayan a dar se den con transparencia y modo diferente al que se ha realizado hasta ahora.

Concluyendo con su intervención, el Sr Alvarez dice que se debe apostar por el comercio tradicional y de proximidad; que lo que les gusta son las ciudades cohesionadas y no los escenarios de piedra y cartón, y que piensan igual que lo que recoge la Ley 10/2019, de 27 de junio, de Ordenación Territorial de Grandes Establecimientos Comerciales, es decir, que este tipo de proyectos de gran envergadura van en detrimento del medio ambiente y del equilibrio sostenible, destroran la economía comercial y de proximidad y aumentan la precariedad laboral.

A continuación toma la palabra el Sr. Bengoetxea agradeciendo a todos los presentes su asistencia y recordando que la semana pasada estuvo en el municipio el Sr. Iker Casanova, así como que el Sr. Casanova algo sabe del pequeño comercio. Por ello, enumera algunas de las reflexiones realizadas por el mismo:

1.- Que el área de influencia que tiene un macro comercio como Zaldunborda llega a cientos de kilómetros y necesita atraer a millones de personas para ser rentable.



2.-Inguruetako denda asko desagertuko direla eta hori enpirikoki egiaztatuta dagoela.

3.-Hiritik kanpo zona komertzialak kokatzeak hiri pobre, triste eta jarduera gutxitzea dakarrela.

4.-Proiektuaren sustatzaileak inbertsio funtsak izaki, bertan sortutako jarduerak gutxi batzuk aberastuko ditu eta aberastasun hori ez dela hemen geratuko, ez duela herriak jasoko.

5.-Bezeroak urrutitik etorriko direla horrek dakarren gas isuriarekin eta proiektuak berak ekologian eragingo duen hondamendiarekin.

Bengoetxea jaunak bere interbentzioarekin jarraitu du eta Hondarribiko herria larrialdi klimatiko egoeran dagoela esan du. Udalbatzak 2019ko urriaren 30ean hala onartu zuela gogorarazi du eta onartutako mozioak hauxe jasotzen zuela:

“Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoa, berotegi efektuzko gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara”.

“Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrea gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrak egitea. Prozesu honek gure jendartearen inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrak ematea ezinbestekoa dela”.

Bengoetxea jaunak, Iker Casanovak zioen bezala, argi dagoela esan du komertzioa hirietatik kanpo jartzerakoan, herria hustutzeaz aparte, baliabide fosilak erretzen dituzten garraio bideetan mugitzera

2.- Que muchas tiendas de los alrededores van a desaparecer y que ello está comprobado empíricamente.

3.- Que la ubicación de zonas comerciales fuera de la ciudad supone una ciudad pobre, triste y una disminución de la actividad.

4.- Dado que los promotores del proyecto son fondos de inversión, la actividad generada en el mismo enriquecerá a unos pocos y esa riqueza no quedará aquí, no la recibirá el pueblo.

5.- Que los clientes vendrán de lejos con la consiguiente emisión de gases y el desastre ecológico que provocará el propio proyecto.

Continúa con su intervención el Sr Bengoetxea y señala que el pueblo de Hondarribia está en situación de emergencia climática. Recuerda que así lo aprobó el Pleno el 30 de octubre de 2019 y que la moción aprobada recogía lo siguiente:

“En los últimos largos años la comunidad científica ha emitido avisos y notificaciones sobre la evolución del cambio climático. El cambio climático se está produciendo como consecuencia de una emisión masiva de gases de efecto invernadero cuya causa principal, aunque no única, radica en el uso de los recursos fósiles que quemamos para mantener nuestro metabolismo socioeconómico. El cambio climático, por tanto, lo provocamos nosotros principalmente y ya estamos empezando a detectar las consecuencias”.

“Creemos que debemos colocar nuestra brújula mirando hacia una Euskal Herria que sea lo antes posible neutra en emisiones de carbono, y para ello es imprescindible llevar a cabo transformaciones rápidas y eficaces. Este proceso traerá implicaciones múltiples y profundas en nuestra sociedad, tanto en el tejido productivo como en la movilidad, en la ordenación del territorio, etcétera, por eso consideramos que es imprescindible dar pasos rápidos y eficaces”.

El Sr Bengoetxea, como decía Iker Casanova, señala que es evidente que si situamos el comercio fuera de las ciudades, aparte de vaciar el pueblo, nos lleva a desplazarnos en medios de transporte que queman



garamatzala. Gainera, Zaldunbordaren egoera berezia dela esan du, hemendik ehun kilometro inguruan jendea erakartzen duen asmoa (proiektuak errentagarria izan nahi badu) eta beraz, jende andana erakarri behar duela, horrek dakarren kutsadurarekin. Beraz, ez dela proiektu jasagarria esan du.

Ingurumenaren inguruan Zaldunborda proiektuak sortuko dituen inpaktuen inguruko azterketa ezberdinak daudela esan du, baina bere taldeak zehazki ebazpen oinarri hartuko duela adierazi du, hain justu, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak 2018ko azaroaren 19an argitaratutakoa:

“EBAZPENA, 2018ko azaroaren 19koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Hondarribiko (Gipuzkoa) 1.1 Zaldunborda gaina eremuaren Plan Partzialaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua”.

Eta zehazki C atalean *“C. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak:*

Planaren eremuaren inguruan ingurumen-balio hauek identifikatu dira:

-Espazioaren iparraldean, 800 metro inguruko distantzian, Natura 2000 Sareko Jaizkibel (ES212017) Kontserbazio Bereziko Eremua kokatzen da.

-Eremuaren ipar-mendebaldeko ingurua Aiako Harria-Jaizkibel korridore ekologikoaren eta horren moteltze-eremuaren parte da. Halaber, Jaizkibel mendiaren hegoaldeko hegalean hedatzen den landazabal atlantikoan, isurialde honek drainatzen duen sare hidrografikoari lotutako baso naturalak konektatuta daude.

-Eremutik iragaten da Zokueta erreka, urak Jaitzubi errekarara isuriz. Jaitzubi erreka Txingudi-Bidasoa Kontserbazio bereziko Eremuko/Hegaztientzako Babes bereziko Eremuko eta hezeguneko parte da, eta izen bereko badien itsasoratzen da. Erreka horrek, eremuaren ekialdeko muga, bira egiten du hegoaldeko aldera, eta GI-363 errepidearen azpitik igarotzen da 140 metroan gutxi gorabehera. Horietatik, 50 metro planaren eremuaren barnean daude.

recursos fósiles. Además, indica que la situación de Zaldunborda es peculiar, ya que la intención es atraer gente a unos cien kilómetros de aquí (si el proyecto quiere ser rentable) y, por lo tanto, debe atraer mucha gente con la consiguiente contaminación. Por lo tanto, dice que no es un proyecto sostenible.

Señala que hay diferentes estudios sobre los impactos ambientales que va a generar el proyecto de Zaldunborda, pero que su grupo va a basarse en la resolución publicada por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco el 19 de noviembre de 2018:

“RESOLUCIÓN de 19 de noviembre de 2018, del director de Administración Ambiental, por la que se formula documento de alcance del estudio ambiental estratégico del Plan Parcial del ámbito 1.1 Zaldunborda gaina en el municipio de Hondarribia, Gipuzkoa”

Y en concreto del apartado *“C. Áreas ambientalmente relevantes:*

En el entorno del Plan se han identificado los siguientes valores ambientales:

-Al norte del espacio, a una distancia de 800 metros aproximadamente, se localiza la Zona de especial Conservación de la Red Natura 200 “Jaizkibel (ES212017).

-La zona noroeste del ámbito forma parte del corredor ecológico Aiako Harria-Jaizkibel y de su área de amortiguación. Asimismo, en la campiña atlántica que se extiende a lo largo de la ladera sur del monte Jaizkibel existen conexión entre las masas de bosque natural asociadas a la extensa red hidrográfica que drena esta vertiente.

-Por el sector discurre el arroyo Zokueta, tributario del arroyo Jaitzubi que discurre y forma parte de la ZEC/ZEPA y el humedal Ramsar de Txingudi-Bidasoa y desemboca en la bahía del mismo nombre. Este arroyo, en el extremo este del ámbito, gira al sureste, entrando en cobertura bajo la carretera GI-363 a lo largo de unos 140 metros, de los cuales 50 metros discurren por el ámbito del Plan.



-Eremuko landaredia baso mistoek, haltzadi kantauriarrek (91EO habitata) eta uztako larreek (6510 habitata) osatzen dute, iparraldean. Azken biak batasunaren intereseko habitatak dira eta, haltzadiaren kasuan, lehentasuneko izaera du 91EO* habitatak. Azalera horren parte bat zaborteziaren eremuarekin bat dator.*

-Zaldunborda baserria, sektorearen hegoaldeko mugan, Balizko Arkeologia Gune bezala dago inbentariatua (eraikinaren hormen barruko eremua)”.

Bengoetxea jaunak bere interbentzioarekin jarraitu du esanez ebazpeneko lehenengo eta hirugarren puntuan Natura 2000 sareak babestutako eremuak aipatzen direla. Jarraian, Natura 2000 Sarea zertan oinarritzen den azaldu du eta Eusko Jaurlaritzak ekinbiderako prestatuta duen web gunean honela ageri dela adierazi du: *“Natura 2000 biodibertsitatearen galera ekiditeko Europan dagoen proiektu nagusia da, gure ondorengoei bizi-kalitate hobea ahalbidetzea da helburu duena”.* *“Natura 2000 Sarea 1992an sortu zen, Habitaten Zuzentzaraua jarraituz. Bi espazio mota aurreikusten dira: Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE), Zuzentzarauan jasotako interes komunitarioko habitat eta espezieen kontserbazioa helburu dutenak, eta Hegaztientzako Babes Bereziko eremuak (HBEB), 1979ko Hegaztien Zuzentzarauak ezarritakoak basahegaztientzat garrantzi berezia duten naturagumeeekin bat eginez”.*

Bengoetxea jaunak Natura 2000 Sareak aipatzen dituen bi eremu gure eskualdean daudela azaldu du eta Aiako Harria parke naturala, Jaizkibel KBE, Txingudi HBEB eta Txingudi-Bidasoa KBE aipatu ditu. Eremu horiek Natura 2000 Sareak babesten dituela esan du eta Zaldunborda hauen guztien erdian dagoela.

Ebazpenaren bigarren puntuan, berriz, Jaizkibel-Aiako Harria korridorea aipatzen dela adierazi du eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2005ean argitaratutako *“Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea”* txostenean Jaizkibel-Aiako Harria korridoreaz

-La vegetación del ámbito está compuesta por un mosaico de bosque mixto, aliseda cantábrica (habitat 91EO) y prados de siega (hábitat 6510), al norte del sector. Estos dos últimos son hábitats de interés comunitario, y en el caso de la aliseda, el hábitat 91EO* tiene carácter prioritario. Parte de esta superficie se corresponde con el área del vertedero.*

-El caserío Zaldunborda, colindante con el límite sur del sector, está inventariado como Zona de Presunción Arqueológica (área intramuros del edificio)”

El Sr Bengoetxea continúa con su intervención señalando que en el primer y tercer punto de la resolución se hace referencia a las zonas protegidas por la red Natura 2000. Seguidamente, explica en qué se basa la Red Natura 2000 e indica que en la página web del Gobierno Vasco para la iniciativa se recoge que *“Natura 2000 es el principal proyecto en Europa para evitar la pérdida de biodiversidad, con el objetivo de posibilitar una mejor calidad de vida a nuestros descendientes”.* *“La Red Natura 2000 se creó en 1992 siguiendo la Directiva de Hábitats. Está formada por dos tipos de espacios: las Zonas Especiales de Conservación (ZEC), designadas para la conservación de los hábitats y especies de interés comunitario incluidos en esta Directiva, y las Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA), establecidas por la Directiva de Aves de 1979 que se corresponden con las zonas naturales de especial importancia para las aves silvestres”.*

Señala el Sr. Bengoetxea que dos de los ámbitos a los que se refiere la Red Natura 2000 se encuentran en nuestra comarca y menciona el Parque Natural de Aiako Harria, la ZEC Jaizkibel, la ZEC Txingudi y la ZEC Txingudi-Bidasoa. Añade que estas zonas están protegidas por la Red Natura 2000 y que Zaldunborda se encuentra en el centro de todas ellas.

Indica que en el segundo punto de la resolución se hace referencia al corredor Jaizkibel-Aiako Harria y explica el mapa del corredor Jaizkibel-Aiako Harria realizado en el informe *“Red de Corredores Ecológicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco”* publicado en 2005 por el Departamento de



eginiko mapa azaldu du. Zaldunbordak mapa horretan duen kokagunea erakutsi ondoren, egin nahi den eraikinak korridorean eragin zuzena izango lukeela esan du

Ebazpenaren laugarren puntuari dagokionez, Bengoetxea jaunak bi habitat berezi aipatzen direla adierazi du: batetik, kantauriar haltzadia (91EO) eta sega-belardiak (6510 habitata), baina lehentasuna bereziki haltzadiari ematen zaiola esan du.

Bestalde, Bengoetxea jaunak Irekibai aipatu du, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako eragilea, era eragile hau zertan oinarritzen den bere web gunean ageri dela dio: *“Bidasoa eta Leitzarain ibaien arroetan kokaturiko Natura 2000 guneetako Batasunaren Intereseko ibai habitaten eta espezieen kontserbazio egoera hobetzea”*.

Irekibairen webgunean haltzadiaren habitataren inguruan, berriz, hauxe ageri dela dio Bengoetxea jaunak:

*“Altzadia ibaiertzeko baso bat da, eta ibaien ondoan hazten da lehen lerroan, lurzoru oso hezeetan edo istiltsuetan, ibaien aldean behingo ur-goraldiek eraginda. Batasunaren intereseko habitat bat osatzen du, gehienbat goi eta erdiko ibilguetan hazten dena, eta honako espezieak dira nagusi: haltza (*Alnus glutinosa*), lizar arrunta (*Fraxinus excelsior*), urkiak (*Betula alba* edo *Betula pendula*), hurritza (*Corylus avellana*) eta makalak (*Populus nigra*). Hona basootako funtzio ekologikorik bereizgarrienak: ziklo hidrológico erregulatzea; higadura geldiaraztea eta ibai-ekosistemaren biodibertsitatearen eta konektibitatearen oreka mantentzea, lehen mailako korridore ekologikoak baitira, eta toki irekietara gutxi ateratzen diren animalientzako aterpe eta babesleku. Azken alderdi horrek garrantzi berezia du Irekibai proiektuan”*.

Laburbilduz, Bengoetxea jaunak eraikiko den eremuak ingurune aldetik duen papera oso garrantzitsua dela esan du eta kontserbazioaren aldetik funtzio oso inportanteak betetzen dituela. Batetik, eremuan bertan erreka bat dagoelako habitat babestua duena eta gainera beheago dagoen Txingudi-Bidasoa KBE eta Txingudi HBEBren ur emaria delako, eta

Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco. Tras mostrar la ubicación de Zaldunborda en este mapa, dice que el edificio que se pretende construir tendría una afección directa en el corredor.

En cuanto al cuarto punto de la resolución, señala el Sr. Bengoetxea que se mencionan dos hábitats singulares: por un lado, la aliseda cantábrica (91EO) y los prados de siega (Hábitat 6510), pero que la prioridad se da especialmente a la aliseda.

Por otro lado, el Sr. Bengoetxea hace referencia a Irekibai, proyecto creado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, y añade que en su página web se indica en qué está basado este proyecto: *“Mejorar el estado de conservación de los hábitats y especies fluviales de interés comunitario de los espacios Natura 2000 situados en las cuencas de los ríos Bidasoa y Leitzarain”*.

En cuanto al hábitat de aliseda, señala el Sr. Bengoetxea que en la web de Irekibai se dice lo siguiente:

*“La aliseda es un bosque ribereño que se sitúa en primera línea respecto al cauce, en suelos muy húmedos o encharcados, influidos por las crecidas periódicas de los ríos. Forma un hábitat de interés comunitario que crece generalmente en cursos altos y medios, dominado por alisos (*Alnus glutinosa*), fresnos de montaña (*Fraxinus excelsior*), abedules (*Betula alba* o *Betula pendula*), avellanos (*Corylus avellana*) o chopos (*Populus nigra*). Entre las funciones ecológicas más características de estos bosques se encuentran: regular el ciclo hidrológico, frenar la erosión y mantener el equilibrio del ecosistema fluvial, la biodiversidad y la conectividad, ya que constituyen corredores ecológicos de primer orden que ofrecen refugio y protección a los animales, poco dados a salir a campo abierto. Este último aspecto cobra especial relevancia en el proyecto Irekibai”*.

En resumen, manifiesta el Sr. Bengoetxea que el papel ambiental de la zona que se va a construir es muy importante y cumple unas funciones de conservación muy importantes. Por un lado, porque en el propio ámbito existe un arroyo con hábitat protegido y además es un caudal de agua de la ZEC Txingudi-Bidasoa y la ZEPA Txingudi que está más



bestetik, Jaizkibel-Aiako Harria korridorean kokatuta dagoelako.

Ondorioz, lehen hitz egin dutenek aipatutako arrazoi ekonomiko, sozial eta kulturalak kontuan hartuz, eta Bengoetxea jaunak aipatutakoen ondoren, bertako pertsona eta naturarentzat Zaldunbordako proiektua negatiboa dela esan eta gainera, itzulibide gabekoa izango litzatekeela. Horregatik guztiagatik, Bengoetxea jaunak "Zaldunborda gelditu!" ozen esan du.

Jarraian, Alkate jaunak hartu du hitza eta honako testua irakurri du:

1. *"Hondarribiko Udalak arduraz, zuzen eta zilegitasun demokratikoz jokatu du Zaldunborda Gaineko jarduera ekonomikoak sustatzea erabaki duenean:*

1.1. *2017an onartu zen Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorreko determinazioetan jaso zen Zaldunborda Gaineko eremuan jarduera ekonomikoa egitea, 4. mailako merkataritza jarduerak barne hartzen zituela. Zergatia argia da:*

1.1.1. *Hondarribiak dituen ezaugarri geografiko eta orografikoengatik, bere histori bilakaerarengatik eta administrazio-determinazioengatik ezin du lur eremu gehiegirik eskaini jarduera ekonomiko-industrialak garatzeko.*

1.1.2. *Hondarribia Gipuzkoako eta Lapurdiko mugatik hurbil egotea eta Donostiatik hurbil egotea interesgarri gertatzen da merkataritza-planteamenduetarako. Konstatazioa da hori: Irunen, Oiartzunen eta Donostian bertan urtez urte pilatu diren saltoki handietan egiten dituzte zenbait salerosketa hainbat*

abajo, y por otro, porque está situado en el corredor Jaizkibel-Aiako Harria.

En consecuencia, teniendo en cuenta las razones económicas, sociales y culturales apuntadas por las personas que han hablado anteriormente, y después de las mencionadas por el Sr Bengoetxea, señala que el proyecto de Zaldunborda es negativo para las personas y la naturaleza del lugar y que, además, sería irreversible. Por todo ello, el Sr Bengoetxea exclama en voz alta "Zaldunborda gelditu!".

A continuación toma la palabra el Sr. Alcalde y da lectura al siguiente texto:

1. *El Ayuntamiento de Hondarribia ha actuado con responsabilidad, rectitud y legitimidad democrática a la hora de decidirse por Zaldunborda Gaina como zona para promoción de actividad económica:*

1.1 *En las determinaciones del Plan General de Ordenación Urbana aprobado en junio del 2017 ya se preveía la implantación de actividad económica en el ámbito de Zaldunborda Gaina, incluyendo actividades comerciales de cuarta categoría. El motivo es claro:*

1.1.1 *Hondarribia, por sus características geográficas y orográficas, por su evolución histórica y por sus determinaciones administrativas, no tiene apenas opciones de ofrecer suelo para actividades económicas e industriales.*

1.1.2 *La proximidad de Hondarribia a la frontera de Gipuzkoa y Lapurdi, así como a Donostia, resulta de interés para los planteamientos comerciales. Esto es una constatación: algunos y algunas hondarribiarras realizan sus compras en las grandes superficies que se han acumulado año tras año en Irun,*



hondarbiarrek. Eta konstatazioa den bezala, industri garapenerako zailtasun nabarmenak dituela gure hiriak. Horiek guztiak kontuan hartuta eta inguruan bertan ekimen pribatuko proiektuak jartzeko aukeraren aurrean, gobernu-taldeak lehentasuna eman zion sustatze publikoaren aldeko apustuari 2017an.

1.2. Zaldunborda Gaineko eremuaren egoerarengatik

1.2.1. Desnaturalizatutako lursail publikoa, deskontaminazioak eragindako ingurumen arazoak dituen, H-Donostia komunikabide nagusietatik hurbil dagoena. Eremu hori ez denez beharrezkoa eskualdeko erraustegia eraikitzeko, eta araudi orokorrean, sektorialean eta tokikoan kalifikatuta dagoenez, beste aukera batzuk daude eremua garatzeko.

1.2.2. Lurralde gidalerroek mugak ezartzen dituzte jarduera ekonomikoak baimentzeko. Lur publikoak erabiltzeari ematen zaio lehentasuna hurbileko lur pribatuak erabiltzearen aurretik.

1.2.3. Hondarribiko Udalak Zubieta-Urdanibiako industria jardueraren alde egin duen apustuak orain arte ez du babes nahikorik izan hori garatu ahal izateko. Irungo kirol instalazioen arazoa konpondutakoan, Irungo udalbatzak Zubieta-Urdanibia garatzeko Bateragarritze Plana izapidetzen lagunduko duela espero da. Bestalde, VíaIrun proiektuari eskaini zaion lehentasunaren ondorioz, alde batera utzi da Zubieta-

Oiartzun y en la propia Donostia. Así como es una constatación que nuestra ciudad tiene evidentes dificultades para el desarrollo industrial. Teniendo en cuenta todo ello y ante la posibilidad de instalar proyectos de iniciativa privada en el entorno, el Equipo de Gobierno dio prioridad a la apuesta por la promoción pública en 2017.

1.2 Por el estado del ámbito Zaldunborda Gaina.

1.2.1 Terreno público desnaturalizado con una problemática ambiental por la descontaminación, cercano a las vías principales de comunicación H-Donostia. La innecesariedad de dicho ámbito para la construcción de la incineradora comarcal y su calificación en la normativa general, sectorial y local abre una nueva serie de posibilidades al desarrollo del ámbito.

1.2.2 Limitación por parte de las directrices territoriales para la autorización de actividades económicas. Prioridad de utilización de terrenos públicos frente a la utilización de terrenos privados cercanos.

1.2.3 La apuesta del Ayuntamiento de Hondarribia por la actividad industrial en Zubieta-Urdanibia no ha contado hasta el momento de un respaldo suficiente para poder desarrollarse. Es de esperar que la resolución de la problemática de las instalaciones deportivas de Irun haga que la corporación irundarra colabore en la tramitación del Plan de Compatibilización para el desarrollo de Zubieta-Urdanibia; por otro lado la prioridad que se le ha ofrecido al proyecto VíaIrun ha hecho que se haya



Urdanibiaren eskualde garapen partekatua potentzialtasuna. Era berean, GFAREN laguntza foru gobernuaren lehentasun baldintza berrietan landu behar da, eta Euskadiko Parke Teknologikoen laguntzak tokiko erakundeek konplizitate izan behar du alde aurretik, baina egia da, halaber, Ekonomia Sustatzeko sailburuaren arabera Miramon erabat betetzen ari dela, eta horrek interesgarri egiten duela gure eskaintza prest izatea eta mahai gainean jartzea.

1.2.4. Hondarribiko Udalaren eskumenekoa da Hondarribiaren planeamendua egitea, Irungo edo Oiartzungo Udalen eskumenekoa den bezalaxe Irungo edo Oiartzungo hiri-planeamendua egitea. Udal autonomiaren erakusgarri da kasu guztietan, eta Hondarribiak ez die inoiz Iruni edo Oiartzuni esan nolako hiri-planeamendua zehaztu behar duten, nahiz eta denok jakin hainbat eragin nabarmen izan dituztela auzoko hirien erabakiek. Oraingoan berriz guri esaten ari zaigu Hondarribiko udalerrian zer egin dezakegun eta zer ez.

1.2.5. Plan Orokorren determinazio horiek onartu zirenean ez zegoen indarrean 2019ko ekainean onartu den legea. Hondarribiko Udalak harrezkero hartutako erabakiek beren bidea egin dute, erabaki horiek eskubide eta betebeharrak erakarri dituzte eta horiei ere erantzun behar die Udalak.

dejado a un lado la potencialidad del desarrollo comarcal compartido de Zubieta-Urdanibia. Asimismo, el apoyo de GFA debe trabajarse en las nuevas condiciones de prioridad del gobierno foral y el apoyo de Parques Tecnológicos de Euskadi debe contar con la previa complicidad de las instituciones locales, pero también es verdad que según la Consejera de Promoción Económica, Miramón está llegando a un grado de colmatación que hace interesante tener dispuesta nuestra oferta y ponerla sobre la mesa.

1.2.4 Es competencia del Ayuntamiento de Hondarribia la realización del planeamiento de Hondarribia, al igual que es competencia de los Ayuntamientos de Irun u Oiartzun la realización de los planeamientos urbanos de Irun u Oiartzun. Es una muestra de autonomía municipal en todos los casos y Hondarribia nunca ha dicho a Irun o a Oiartzun el planeamiento urbano que tienen que definir, aunque todos somos conscientes de que las decisiones de las ciudades limítrofes han tenido influencias notables. Esta vez, sin embargo, se nos está diciendo qué es lo que podemos y lo que no podemos hacer en el municipio de Hondarribia.

1.2.5 Cuando se aprobaron estas determinaciones del Plan General no estaba en vigor la ley que se ha aprobado en junio de 2019. Las decisiones tomadas por el Ayuntamiento de Hondarribia desde entonces han hecho su camino, esas decisiones han conllevado derechos y deberes y a estos también tiene que responder el Ayuntamiento.



1.2.6. Zilegitasun demokratikoa ere aipatu dugu, izan ere, Udalbatzan hartutako erabakiez ari baikara, bai 2017an, bai gaur, joan den maiatzeko hauteskunde demokratikoen ondoren. Udal honen gehiengoak ez du bestek baino zilegitasun demokratiko gehiago, baina ezta gutxiago ere. Eta udalerraren interes orokorrari begira ari da, asmatzen duenean edo huts egiten duenean bezalaxe.

2. Hondarribiko Udalak hiru helburu argi bete nahi izan ditu Zaldunborda Gaineko eremuaren garapenaren bidez:

2.1. Zaldunborda Gaina axola handikoa da Hondarribiko jarduera ekonomikoaren garapenerako.

2.2. Hondarribiko enplegu-datuak hobetzeko tresna indartsua da, lanpostu berriak sortzeko funtsezkoa baita Zaldunborda Gaina garatzea. Badakigu ezin dela esan Hondarribiko langabetu gehienentzako lanpostuak hemen sortuko direnik, ez gara inozoak eta ez dugu inor inozotzat hartu nahi, baina deskalifikatzen hasita badakigu ezin dela esan lanpostuen hazkuntzari eragingo ez dionik. Alegia, kopuruari modu errealean eragingo dio. Guri ere gustatuko litzaiguke askotariko profilak sortzeko gaitasuna izatea, gainera, baina guk beste profil horiek Zubieta-Urdanibian ikusten ditugu batez ere.

2.3. Ingurumenaren ikuspuntutik ezinbestekoa da garatzea, hondakin ez arriskutsuen zabortegia eremuaren jabeek zigilatzea nahitaezko baldintza baita, eta horretarako eremuaren jabeek egin beharko dute inbertsioa, alegia, ez da diru publikorik

1.2.6. Hemos mencionado también la legitimidad democrática, ya que estamos hablando de decisiones adoptadas en el Pleno, tanto en 2017 como hoy, tras las elecciones democráticas del pasado mes de mayo. La mayoría de este Ayuntamiento no tiene más legitimidad democrática que otros, pero tampoco menos. Y está mirando el interés general del municipio, igual que cuando acierta o falla.

2. El Ayuntamiento de Hondarribia ha querido cumplir tres objetivos claros a través del desarrollo del ámbito de Zaldunborda Gaina:

2.1 Zaldunborda Gaina es importante para el desarrollo de la actividad económica de Hondarribia.

2.2. Se trata de una potente herramienta para la mejora de los datos de empleo de Hondarribia, ya que el desarrollo de Zaldunborda Gaina es fundamental para la creación de nuevos puestos de trabajo. Sabemos que no se puede decir que se vayan a crear aquí los puestos de trabajo para la mayoría de los parados de Hondarribia, no somos ingenuos ni queremos considerar ingenuo a nadie, pero empezando con la descalificación sabemos que no se puede decir que no vaya a afectar al crecimiento de los puestos de trabajo. Es decir, afectará al número de forma real. A nosotros también nos gustaría tener, además, capacidad para crear perfiles diversos, pero nosotros vemos esos otros perfiles sobre todo en Zubieta-Urdanibia.

2.3. El desarrollo es imprescindible desde el punto de vista ambiental, ya que el sellado del vertedero de residuos no peligrosos por parte de los propietarios de la zona es un requisito obligatorio, para lo cual la inversión deberá ser realizada por los propietarios de la zona,



erabiliko horretarako, eta hori ezin da saihestu.

Bestetik, HAPOaren fitxak ondo jasotzen du ingurumenaren eta ibaien babesaren aldetik nolako kontsiderazioa duen eta zer errespetatu behar den eremu honetan, eta Udalaren egitekoa izango da horiek betetzea eta betearaztea.

3. Zaldunborda Gaineko garapenaren eraginak

3.1. Ukaezina da jarduera ekonomiko berri batek inguruko ekonomi sistemari eragiten diola. Arestian aipatu den bezala, HAPOa onartu genuenean Zaldunborda Gaina garatzearen aldeko eta kontrako alderdiak aztertu genituen, eta erabaki genuen aurrera egitea udalerrriaren interes nagusien aldekoa zela iritzita.

3.2. Ukaezina da tokiko merkataritzari eragin diezaiokeela, eta ukaezina da hurbileko merkataritzak ez duela une erraza bizi, baina gertakari konplexu bat jorratzen denean ideia ximpleekin jokatzeko ez da bide-lagun ona izaten errealtatea hobeto ulertu eta azaltzeko. Izan ere, konplexua eta askotarikoa da merkataritzaren momentua oro har: aipatu dugun hurbileko denden zailtasunekin batera, bizia da saltoki handien eta ertainen eragina eta elkarren arteko lehia azkeneko berrogei urtean esate baterako, on-line merkataritzaren eragin berriak denak ziprztintzen du azkeneko boladan... Jabetuta gaude ez dela inondik erraza hurbileko dendaren lekua topatzea, baina gure dendariak ahalegin eta irudimen handiz topatzen dute.

es decir, no se destinará dinero público para ello, lo que no se puede olvidar.

Por otro lado, la ficha del PGOU recoge la consideración ambiental y de protección de los ríos y lo que debe ser respetado en este ámbito, correspondiendo al Ayuntamiento su cumplimiento y ejecución.

3. Efectos del desarrollo de Zaldunborda Gaina

3.1 Es innegable que una nueva actividad económica afecta al sistema económico de la zona. Tal y como se ha mencionado anteriormente, con la aprobación del PGOU se analizaron los aspectos favorables y desfavorables al desarrollo del ámbito Zaldunborda Gaina y se decidió avanzar por considerar que era favorable a los principales intereses del municipio.

3.2. Es innegable que puede afectar al comercio local y es innegable que el comercio de proximidad no vive un momento fácil, pero cuando se aborda un hecho complejo actuar con ideas simples no es un buen compañero de camino para comprender y explicar mejor la realidad. De hecho, en general, es complejo y variado el momento del comercio: junto a las dificultades de las tiendas de proximidad que hemos mencionado, es intensa la influencia de las grandes y medianas superficies y la competencia entre ellas en los últimos cuarenta años por ejemplo, las nuevas influencias del comercio on-line lo salpica todo últimamente... Somos conscientes de que no es nada fácil que la tienda de proximidad encuentre su lugar, pero nuestros comerciantes están actuando con gran esfuerzo e imaginación.



Egin dezagun ariketa ttiki bat gure erosteko ohiturak aztertzeko: Hondarribian erosten dugu, Irunen eta Donostian ere bai, eta batzuek Hendaian eta Donibane Lohizunen. Irungo, Oiartzungo eta Donostiako saltoki handietan ere erosten dugu, batzuek Usurbilen ere bai, eta askok Baiona, Biarritz, Angeluko saltoki handietan ere bai. Eta batez ere, gero eta gehiago erosten dugu etxetik eta etxera ekartzen digute erositakoa....

Berriz esango dut, jabetuta gaude ez dela inondik erraza hurbileko dendaren lekua topatzea. Gainera, egoera ez da bat-batean gertatu: Mamut noiz jarri zuten? Zenbat saltoki handi eta ertain ditugu hogeikilometroren bueltan azkeneko berrogei urtean: Alcampo, Carrefour, Bricodepot, Leroi Merlin, Mercadona pareta, Aldi, Saltoki, Lidl...? ez dut zerrendarekin jarraituko, baina horietatik zenbat daude Hondarribian? Zenbat hondarribiar joaten dira horietara? Baina denok dakigu gertakari hau ez dela atzo goizekoa, eta gainera gure gizartean oso txertatuta dagoela. Kontsumitzaile bakoitzak erabakitzen du non eta nola erosi, baina noiztik joaten diren hainbat hondarribiar horrelakoetara?

Hala eta guztiz ere, Hondarribian azkeneko urteotan dendarien ekimen bateratua indartzen ari da. Eta ekimen bateratu horretan Hondarribiko Udala ere parte hartzen ari da zenbait ekimenetan zuzenean parte hartuz, beste batzuetan kaleko giroa ekitaldien bidez suspertuz., eta aurrera begira ere elkarrekin lan egiteko eskaintza egin nahi dugu hemendik, batez ere zuek dituzuen proposamenetan laguntzeko moduan baldin bagaude horixe esan nahi dugu hemendik.

Hagamos un pequeño ejercicio para analizar nuestros hábitos de compra: compramos en Hondarribia, también en Irun y Donostia, y algunas personas en Hendaia y San Juan de Luz. También compramos en las grandes superficies de Irun, Oiartzun y Donostia, algunas personas también en Usurbil y muchos también en las grandes superficies de Bayona, Biarritz y Angelu. Y sobre todo, cada vez compramos más desde casa y nos traen a casa lo que compramos....

Insisto, somos conscientes de que no es nada fácil que la tienda de proximidad encuentre su lugar. Además, la situación no se ha producido de repente: ¿cuándo abrieron Mamut? ¿Cuántas grandes y medianas superficies tenemos en torno a veinte kilómetros en los últimos cuarenta años: Alcampo, Carrefour, Bricodepot, Leroi Merlin, dos Mercadonas, Aldi, Saltoki, Lidl... no voy a continuar con la lista, pero de estos cuántos hay en Hondarribia? ¿Cuántos hondarribiarras acuden a ellos? Pero todos sabemos que este hecho no es de ayer, y que además está muy insertado en nuestra sociedad. Cada consumidor decide dónde y cómo comprar, pero ¿desde cuándo acuden los y las hondarribiarras a estas superficies?

Sin embargo, en Hondarribia en los últimos años se está reforzando la iniciativa conjunta de los comerciantes. Y en esta iniciativa conjunta también está participando el Ayuntamiento de Hondarribia participando directamente en algunas iniciativas, o en otras fomentando el ambiente de la calle a través de actos..., y de cara al futuro también queremos hacer desde aquí un ofrecimiento para trabajar conjuntamente, sobre todo si estamos en condiciones de colaborar en



Badakigu gaurko eguna ez dela zuetako askorentzat egokiena izango hauxe entzuteko, baina esan beharrekoa dela iduritzen zaigu: Zaldunborda Gaineko ekimena indarrean jarri aurretik zergatik ez dugu estrategia bateratu bat prestatzen hara hurbil daitezkeenetatik batzuk gure hiriguneko dendetara erakartzeko, adibidez? Ez ditugu denak behar, baina mordoxka bat etorriko balitz, aukera berriak etor litezkeelakoan gaude”.

Alkate jaunaren interbentzioaren ondoren, erreplikarako txanda luzatu da eta Enparan jaunak hartu du hitza. Amuitz Merkatarien Elkarteko idatziaren irakurketa oso interesgarria iruditu zaiola esan du eta gauza txiki batzuk aipatu nahiko lituzkeela.

Hasteko, zilegitasun demokratikoaz mintzatu da eta Hondarribiko Udalbatzan bozken ordezkartzaren banaketa aipatu du. Udalaz haratago jota, hauteskunde programari erreparatu diotela adierazi du eta EAJK hauteskundeetarako bere programan makro-outlet proiekturik ez dutela topatu esan du. Oinarrian desadostasun batzuk dituztela esan du, esaterako, kutsadurari dagokionez, zigilatzeaz...Lurra publikoa zen bitartean ere kutsatu egin zela esan du eta jarraian kostua aipatu du. Salerosketa prozesua egin izan ez balitz, deskutsatze kostua hondarribiarrentzat askoz ere baxuagoa izango zatekeela azaldu du, lehen aipatutako 2.000.000 euroak baino gutxiago seguru. Industria garapenari lehentasuna ematearekin ados daudela aitortu du Enparan jaunak; herriaren etorkizun ekonomikoa hobetuko duen sektorea industria garapena dela esan du eta horretan jardun behar dela. Hala ere, garapenik izan ez delako ondoko herriei errua egozteaz ez zaiola gustatu adierazi du. Errua egozterakoan, norberaren zilborrari begiratu behar zaiolakoan dago Enparan jauna eta elkarkidetzaz bultzatu behar dela esan du, horretarako tresnak badirelako, nahiz eta azken boladan Hondarribiko Udalak emandako urratsekin elkarkidetzaz oparoa izatea zaildu den.

las propuestas que ustedes tienen.

Sabemos que el día de hoy no será el más adecuado para muchos de ustedes para escuchar esto, pero nos parece que hay que decirlo: ¿Por qué antes de que entre en vigor la iniciativa Zaldunborda Gaina no preparamos una estrategia conjunta para atraer a las tiendas de nuestro centro urbano a algunas de las personas que pueden ir allí, por ejemplo? No las necesitamos todas, pero si vinieran bastantes, creemos que podrían llegar nuevas oportunidades”.

Tras la intervención del Sr Alcalde, se inicia el turno de réplica y toma la palabra el Sr Enparan. Señala que le ha parecido muy interesante la lectura del escrito de la Asociación de Comerciantes Amuitz y que le gustaría comentar algunas pequeñas cosas.

Para empezar, se ha referido a la legitimidad democrática y ha aludido al reparto de la representación de las votaciones en el Pleno de Hondarribia. Más allá del Ayuntamiento, señala que se han fijado en el programa electoral y añade que no han encontrado ningún proyecto de macro outlet en el programa electoral del PNV. Indica que se basan en algunas discrepancias, por ejemplo, en lo que se refiere a la contaminación, al sellado... Manifiesta que también se contaminó mientras el suelo era público y a continuación menciona el coste. Explica que si no se hubiera llevado a cabo el proceso de compraventa, el coste de descontaminación habría sido mucho más bajo para los hondarribiarras, menos de los 2.000.000 euros antes mencionados, seguro. Reconoce el Sr. Enparan que están de acuerdo en dar prioridad al desarrollo industrial; señala que el sector que va a mejorar el futuro económico del país es el desarrollo industrial y que hay que actuar en ello. Sin embargo, manifiesta que no le ha gustado nada que se culpe a las ciudades vecinas porque no ha habido desarrollo. A la hora de atribuir la culpa, cree el Sr. Enparan que hay que mirar el propio ombligo y que hay que fomentar la solidaridad, porque hay herramientas para ello, a pesar de que últimamente con los pasos



Bere interbentzioarekin jarraituz, Enparan jaunak lurra erostearekin ados zegoela adierazi du eta herriak lurra eskuratzearekin, baina ez eremu hori saltoki izatera bideratzearekin. Izan ere, horrek jardura ekonomikoa handituko lukeela esan izan da, baina Enparan jaunak hori ez dela egia esan du; inork ez duela gehiago erosiko, alegia. Lanpostuei buruz, berriz, baldintza txarreko kontratuak izango direla azaldu du eta kalitatezko enplegua suntsituko dela. Horrelako salgune batek kontsumitzaileei askatasun handiagoa emango diela ere pentsa daitekeela esan du, baina hori ere ez dela egia adierazi du. Azkenean, eskaintza murriztuko delako, merkatua bateratuz, homogeneizatuz eta ondorioz, hiriguneen desertizazioa sortuz; alegia, jendeak erosketak egitera kotxez joan beharko duela eta hori egungo eredu jasangarriaren aurka dagoela.

Jarraian, Alvarez jaunak hartu du hitza, eta esan du mundu guztia ados dagoela industria guneak eta industrialdeak sortzearekin, eta badirudiela Hondarribia ere behartuta dagoela horrelako gune bat izatera, baina hori ez dela egia.

Alvarez jaunak gogorarazi du Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean 10 hektarea ezarri zituztela jardura ekonomikoetarako, eta azaldu du 10 hektareatik, azkenean, eta zergatik jakin gabe, haietako 6 hektarea Zaldunbordenak direla.

Gaineratu du Eusko Jaurlaritzaren dekretuan arrazionaltasuna ezartzen dela eta makro outletak arriskua dakarrela saltoki txikientzat. Are gehiago, Alvarez jaunak dio ezin dela makro outlet bat egin eta gero saltoki txikiei lagundu, hori kontraesana baita. Azaldu du hori gauzatzea kontrako noranzkoan joatea dela eta makro outleta kontrako zerbait dela.

Bere hizketaldiarekin amaitzeko, Alvarez jaunak esan du, hausnarketa gisa, Zaldunborda geldiaraztea aukera bat dela Hondarribiko dibertsifikazio ekonomikorako, eta adierazi du halaber, krisia dagoenean, kontsumoa dela pairatzen duena. Bere ustez, elementu zuzentzaileak ezarri ezin badira, gaizki ibiliko gara.

dados por el Ayuntamiento de Hondarribia se ha dificultado que exista una fructífera colaboración.

Continuando con su intervención, manifiesta el Sr Enparan que estaba de acuerdo con la compra de suelo y con que el pueblo adquiriera los terrenos, pero no con que ese ámbito se destine a zona comercial. De hecho, se ha dicho que eso aumentaría la actividad económica, pero dice el Sr Enparan que eso no es cierto, que nadie va a comprar más. En cuanto a los puestos de trabajo, señala que serán contratos en malas condiciones y se destruirá empleo de calidad. Dice asimismo que se puede pensar que un establecimiento comercial de este tipo dará más libertad a los consumidores, pero señala que tampoco es cierto. Porque al final se va a reducir la oferta, unificando el mercado, homogeneizándolo y creando, por lo tanto, la desertización de los núcleos urbanos, es decir, la gente va a tener que ir de compras en coche y eso está en contra del modelo sostenible actual.

A continuación interviene el Sr Alvarez el cual dice que todo el mundo está de acuerdo en la creación de núcleos y zonas industriales y que parece que Hondarribia también está obligada a tener una zona así, pero que eso no es verdad.

El Sr Alvarez recuerda que en el tema del Plan General de Ordenación Urbana establecieron 10 hectáreas para actividades económicas y explica que de 10 hectáreas, al final y sin saber por qué, 6 de ellas acabaron correspondiendo a Zaldunborda.

Añade que en el decreto del Gobierno Vasco se establece la racionalidad y que el macroulet supone un riesgo para el pequeño comercio. Es más, el Sr Alvarez dice que no se puede hacer un macroulet y luego ayudar al pequeño comercio ya que eso supone una contradicción. Explica que llevar a cabo eso es ir en sentido contrario y que el macroulet es algo contrario.

Para concluir con su intervención, el Sr Alvarez dice que, a título de reflexión, la paralización de Zaldunborda es una oportunidad para la diversificación económica de Hondarribia, y añade que, cuando hay una crisis, es el consumo el que sufre. Considera que, si no se pueden implantar elementos correctores, mal se va a andar.



Jarraian, Isasi jaunak hartu du hitza eta ezer baino lehen, Merkatarien Elkarteari eta Zaldunborda Gelditu Plataformari eskerrak eman dizkie.

Zaldunbordaren gaiaren inguruan oposizioko kide guztiak batu direla gogorarazi du Isasi jaunak eta hori positibotzat jo du, bere iritziz, horrek bere balioa duelako.

Alde batetik, hasiera batean tentsio handiko Udaltzatza bilkura izan zitekeela pentsatu arren, azken asteko berriak azpimarratuko lituzkeela esan du eta arkitektoaren lana ere nabarmendu nahi izan du, bere txosten teknikoak ahalbidetu duelako prozesua etetea. Alde horretatik, alde positiboak aipatu ditu, nahiz eta bide luzea geratzen dela iritzi dioen.

Beste alde batetik, Udal Gobernuak bozketarako ze proposatzen duen ikusita, horrek aurrera egiteko bidean askorik ez duela laguntzen adierazi du Isasi jaunak. 2019ko ekainaren 26ko dekretuan eta gaztelania hutsez, Plan Partziala onartu zela gogorarazi du eta ondoren, abenduaren 3an, atzera bota zela; hasiera batean gaztelania hutsean abiatu zena, Euskararen Nazioarteko Egunean zuzendu zela, alegia. Isasi jaunak gertatutako zabarkeria nekez uler daitekeela adierazi du eta enpresak orain arte bete ez duena, aurrerantzean beteko duela pentsatzeko ze arrazoi dauden galdetu du, baita Zaldunbordako proiektuaren atzean, bi ikuspegi zehatz zeharo desberdinek talka egiten dutela ere.

Eusko Alderdi Jeltzaleak Zaldunborda gaina eremuan jarduera ekonomikoa sustatzea, lanpostuak sortzea, kutsatutako atalak garbitzea... positibotzat jotzen dituen bitartean, hori guztia positibotzat jotzen ez duen EH Bildu dagoela esan du. EH Bilduk Txartaleku igarobide ekologikoa hondatzea ez duela positibotzat jotzen esan du Isasi jaunak, ezta outlet erraldoiaren jarduera ekonomikoa ere —bakan batzuen mesedetan eta askoren kaltetan delako—, ez lanpostu prekarioak sortzea, natura gunea artifizialtzea, automobil eta turismo trafikoa ugaritzea, zentzugabeko kontsumoa sustatzea, multinazional bakan batzuek kulturaren uniformizazioa ezartzea... Hori guztia EH Bilduk bultzatu nahi duen garapen eredu ez dela esan du. Isasi jaunak

Seguidamente toma la palabra el Sr. Isasi para dar las gracias, antes de nada, a la Asociación de Comerciantes y a la Plataforma Zaldunborda Gelditu.

Recuerda el Sr. Isasi que en torno al tema de Zaldunborda se han unido todos los miembros de la oposición, lo que valora positivamente porque, en su opinión, eso tiene su valor.

Por un lado, aunque en un principio se pensó que podía tratarse de una sesión plenaria de alto voltaje, indica que destacaría las noticias de la última semana y también quiere destacar la labor del arquitecto, ya que su informe técnico ha permitido interrumpir el proceso. En este sentido, ha apuntado los aspectos positivos, aunque considera que queda mucho camino por hacer.

Por otro lado, el Sr. Isasi señala que, dado lo que propone el Gobierno Municipal para la votación, esto no ayuda mucho en el avance. Recuerda que en el decreto de 26 de junio de 2019 y exclusivamente en castellano, se aprobó el Plan Parcial, y posteriormente, el 3 de diciembre, fue rechazado; lo que en un principio arrancó sólo en castellano, se enmendó en el Día Internacional del Euskera. El Sr. Isasi señala que difícilmente se puede entender la negligencia que se ha producido y pregunta qué motivos hay para pensar que la empresa va a cumplir lo que hasta ahora no ha cumplido, así como que detrás del proyecto de Zaldunborda chocan dos enfoques concretos totalmente diferentes.

Señala que mientras el Partido Nacionalista Vasco considera positivo el fomento de la actividad económica en Zaldunborda Gaina, la creación de puestos de trabajo, la limpieza de las áreas contaminadas, ahí está EH Bildu que no lo ve positivo. Indica el Sr Isasi que EH Bildu no considera positivo el deterioro del paso ecológico Txartaleku, ni la actividad económica del outlet gigante -en beneficio de unos pocos y en detrimento de muchos-, ni la creación de puestos de trabajo precarios, la artificialización del espacio natural, la proliferación del tráfico automovilístico y turístico, el fomento del consumo descabellado, la implantación de la uniformización cultural por parte de unas cuantas multinacionales... todo esto



Hondarribiarentzat EH Bilduk nahi duen garapena ekonomikoa, linguistikoa, soziala, ekologikoa, justiziazkoa, feminista eta orekatua dela azaldu du. Are gehiago, garapen hori natura ondarearen aurkakoa ezin izan daitekeela esan du, ezta gure hizkuntza eta kulturaren kontrakoa ere, beste garapen eredu bat posible delako. Naturaren zaintzarekin bat datorren jarduera ekonomikoa badela azaldu du, ingurumena errespetatzen duen turismoa ere bai...

Zaldunbordan gasolindegia jartzeak epe motzean irabazpideak suposatuko lituzkeela egia dela aitortu du, bakan batzuentzat, bederen, bai. Hala ere, gasolindegia kentzea eta kutsatutako lurra garbitzea gero norik ordainduko lukeen galdetu du. Une honetan Zaldunbordan kutsatutako lurra zigilatzeke egin behar den lana 3.000.000 eurokoa dela azaldu du eta gainkostu hori lehendik egindako lanak ekarri duela ere erantsi du. Horrekin batera, Isasi jaunak outlet erraldoiaren aurrekontuan kalteak konpontzeko gastuak zenbat izango diren jasotzen den galdetu du eta bai Amerikako Estatu Batuetan, bai Europa iparraldean ere merkatalgune erraldoien ereduak krisian daudela erantsi du. Horregatik, beste herrietan nahi ez dutena Hondarribian jarri behar den galdetu du eta zergatik jarri behar den ere bai. Isasi jaunak baserritarrekin, arrantzaleekin, naturaren babesarekin eta teknologia berrien hedapenarekin jardun behar dela adierazi du. Negozioak egin daitezkeela esan du, berdeak eta errentagarriak, eta bukatzeko, EH Bilduk eredu berritzaile eta sozialen alde egiten jarraituko duela azaldu eta merkatarien laguntzarekin, Zaldunborda gelditzea espero duela.

Jarraian, Alkate jaunak hartu du hitza eta Enparan jaunari zuzenduz, EAJ taldea bakarrik dagoen ez dakiela esan du, baina aurrekontuak onartzerakoan Abotsanitz taldea ere bakarrik geratu dela gogorarazi dio. Alkate jaunak hainbat jokabidek higadura sortzen duela esan du eta gogoeta egin beharra denek dutela esan du, baina baita Enparan jaunak ordezkatzeko duen taldeak ere. Epai bat iritsi dela gogorarazi du eta orain gaia Auzitegi Gorenean dagoela, eta Auzitegi Gorenak erabakia hartzen badu, Udalak horren arabera jokatu duela adierazi du Alkate jaunak.

no es el modelo de desarrollo que quiere impulsar EH Bildu. Explica el Sr Isasi que el desarrollo que quiere EH Bildu para Hondarribia es un desarrollo económico, lingüístico, social, ecológico, de justicia, feminista y equilibrado. Es más, indica que este desarrollo no puede ser contrario al patrimonio natural, ni a nuestra lengua y cultura, porque es posible otro modelo de desarrollo. Manifiesta que existe una actividad económica acorde con la conservación de la naturaleza, así como un turismo respetuoso con el medio ambiente...

Reconoce que es cierto que la instalación de la gasolinera en Zaldunborda supondría ganancias a corto plazo, sí al menos para unos pocos. No obstante, se pregunta quién pagaría después la retirada de la gasolinera y la limpieza del suelo contaminado. Señala que en estos momentos el trabajo de sellado del suelo contaminado en Zaldunborda es de 3.000.000 de euros y que ese sobrecoste lo ha generado el trabajo realizado anteriormente. Al mismo tiempo, pregunta el Sr. Isasi si en el presupuesto del outlet gigante se recoge el importe de los gastos de reparación de daños y añade que tanto en Estados Unidos como en el norte de Europa están en crisis los modelos de grandes centros comerciales. Por ello, pregunta si lo que no quieren en otras ciudades hay que ponerlo en Hondarribia y por qué. Señala el Sr. Isasi que hay que actuar con los baserritarras, pescadores, la protección de la naturaleza y la difusión de las nuevas tecnologías. Dice que se pueden hacer negocios, verdes y rentables, y que EH Bildu va a seguir apostando por modelos innovadores y sociales y espera que, con la ayuda de los comerciantes, Zaldunborda se paralice.

A continuación toma la palabra el Sr. Alcalde y dirigiéndose al Sr. Enparan señala que no sabe si el grupo PNV está solo, pero le recuerda que en la aprobación de los presupuestos el grupo Abotsanitz también se ha quedado solo. Dice el Sr. Alcalde que hay comportamientos que generan desgaste y que todos tienen que reflexionar, pero también el grupo al que representa el Sr. Enparan. Recuerda el Sr. Alcalde que ha llegado una sentencia y que ahora el asunto está en el Tribunal Supremo, y que si el Tribunal Supremo se pronuncia, el Ayuntamiento actuará en consecuencia.



Alvarez jaunari zuzenduz, OTEICek txostena eman zuela gogorarazi dio eta Patxo de Leon arkitekto jaunak ere eremuaren egokitasunaz txostena eman zuela azaldu du.

Bestalde, 2017an onartu zen planeamendurako duten tresna nagusiak ingurumen baldintzak betetzen ez dituela entzuteak kezka sortzen diola esan du Alkate jaunak. Izan ere, administrazio sektorialek euren txostenak eman zituzten eta kontuan hartzekoa da horiek gabe ezin zela nahi zena egin. Udalak, bere lana eginez, zigilatzea nola egiten den beste Administrazioekin batera zaindu behar duela erantsi du eta Alkate jaunak zigilatzea ez dela ateraldi bat esan du, ingurumen aldetik egiten den proposamena baizik eta Eusko Jaurlaritzaren kontrola behar duena. Alde horretatik, Abotsanitz udal taldea gaiaren jarraipena eta salaketak eginez erne dabilela aitortu du Alkate jaunak, baina udal arduradunak euren lana egiten ari direla argi utzi nahi izan du. Hori dela eta, zigor espedienteak ireki behar direnean ireki direla erantsi du eta gertatutakoak txosten teknikoetan oinarrituta gertatu direnez gero, Alkate jaunak bera eremu horietan ezin sar daitekeela esan du, ez enpresa honekin eta ezta beste edozein enpresarekin ere.

Jarraian, Alkateak Alvarez jaunari erantzun dio errealitatea dirudiena baino konplexuagoa dela eta ez dagoela ohitura eksklusiborik, baizik eta mugimenduak direnak direla. Alkate jaunak adierazi du halaber, asmoa ez dela errua botatzea proiektu batzuk ez garatzeagatik, Udala dagokion rolean dagoela baizik eta jarrera batzuetan ez datozela bat.

Ondoren, Alkate jaunak dauden proposamenak aurkeztuko direla aurreratu du.

Enparan jaunak hartu du hitza, oposizioko zortzi zinegotzien izenean euren proposamena azalduko dutela adieraziz, eta azken asteko berrien arabera, proposamena aldatuko dutela aurreratu. Halaxe, puntu bat erretiratzea ezinbestekotzat ikusi dutela adierazi du, hain justu, 1134/2019 Alkate Dekretua bertan behera uzteari zegokiona, baina hori proposatzeak egun indarrak ez duenez, proposamena beste bi puntutan oinarrituta egitea erabaki dutela argitu du Enparan jaunak, proposamena jasotzen

Dirigiéndose al Sr. Alvarez, le recuerda que OTEIC emitió informe y que el Arquitecto Sr. Patxo de León informó sobre la idoneidad del ámbito.

Por otra parte, señala el Sr. Alcalde que le preocupa escuchar que su principal instrumento de planeamiento aprobado en 2017 no cumple con los requisitos ambientales. De hecho, las administraciones sectoriales emitieron sus informes y es de tener en cuenta que sin ellos no se podía hacer lo que se pretendía. Añade que el Ayuntamiento, haciendo su trabajo, tiene que velar por cómo se hace el sellado junto con otras Administraciones y manifiesta el Sr. Alcalde que el sellado no es una ocurrencia, sino una propuesta medioambiental que requiere el control del Gobierno Vasco. En este sentido, reconoce el Sr. Alcalde que el grupo municipal Abotsanitz está vigilante haciendo seguimiento y denuncias del asunto, pero quiere dejar claro que los responsables municipales están haciendo su trabajo. Por ello, añade que se han abierto expedientes sancionadores cuando se han tenido que abrir y dado que los hechos han ocurrido en base a informes técnicos, menciona el Sr. Alcalde que él no puede entrar en ese terreno, ni con esta empresa ni con cualquier otra.

Seguidamente, el Sr Alcalde se dirige al Sr Alvarez respondiendo que la realidad es más compleja de lo que parece y que no se tienen hábitos exclusivos, sino que los movimientos son los que son. El Sr Alcalde añade que la idea no es echar la culpa por no desarrollar unos proyectos, que el Ayuntamiento está en el rol que le corresponde y que hay posturas en las que no coinciden.

A continuación, el Sr Alcalde adelanta que se procederá a exponer las propuestas.

Toma la palabra el Sr. Enparan manifestando que explicarán su propuesta en nombre de los ocho concejales de la oposición, y adelanta que según las noticias de la última semana, modificarán la propuesta. Así, comenta el Sr. Enparan que ven imprescindible la retirada de un punto, que era la suspensión del Decreto de Alcaldía 1134/2019, pero como no tiene vigencia en la actualidad proponerlo, han decidido hacer la propuesta en base a los otros dos puntos, siendo el contenido del



duen 2019ko abenduaren 19ko 9430 SE zkiko idatziaren edukia hauxe izanik:

“a)10/2019 Legea, ekainaren 27koa, establezimendu komertzial handien lurralde antolamenduari buruzkoa, betearaztea.

b)“Zaldunborda Gaina” proiektuari dagozkion izapide guztiak bertan behera uztea”

Jarraian, Serrano andreak 2019ko abenduaren 19ko 9441 SE zkiko idatzi bidez EAJ taldeak aurkeztutako proposamena azaldu du, hitzez hitzeko edukia hauxe izanik:

“1.-Zaldunborda Gaina eremuan jarduera ekonomikoak sustatzeko, lanpostuen sorrera bultzatzeko eta kutsatutako atala garbitzeko planteamendua positibotzat jotzen du Hondarribiko Udalak.

2.-Idea hori garatu ahal izateko sustatzaileek egin beharreko administrazio-tramitazio guztia araudiaren arabera bete beharko dutela, beste herritar guztiak bezala, adierazten du Hondarribiko Udalak.

3.-Hiriko merkataritza sustatzeko duen konpromisoa berretsi nahi du Hondarribiko Udalak, eta sektorearekin lankidetzan azken urteotan aritu den bezala, aurrera begira jarraitzeko asmo irmoa agertu nahi du”.

Proposamenak aztertuta, bozketari ekin zaio ondoren.

Lehenbizi, Abotsanitz, EH Bildu eta PSE-EE-PSOE udal taldeek 2019ko abenduaren 19ko 9430 SE zkiko idatzi bidez aurkeztutako proposamena bozkatu da, bozketaren emaitza aldeko zortzi botokoa eta aurkako bederatzikoa izanik.

Alde bozkatu dute: Igor Enparan Araneta, Guadalupe Queiruga Oronoz, Estitxu Urtizberea Sorzabal, Aitzol Arroyo Tumas, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, Maria Noemi Odriozola Pascual, Xabier Isasi Balanzategui eta Xabier Bengoetxea Erriondo jaun-andreak.

escrito nº 9430 RE, de 19 de diciembre de 2019, que recoge la propuesta, el siguiente:

“a) La ejecución de la Ley 10/2019, de 27 de junio, de ordenación territorial de los grandes establecimientos comerciales.

b) Suspensión de todos los trámites relativos al proyecto “Zaldunborda Gaina”

A continuación, la Sra. Serrano expone mediante escrito nº 9441 RE, de 19 de diciembre de 2019, la propuesta presentada por el grupo PNV, con el siguiente contenido literal:

“1.- El Ayuntamiento de Hondarribia valora positivamente el planteamiento de la promoción de actividades económicas, la creación de puestos de trabajo y la limpieza del área contaminada en el ámbito de Zaldunborda Gaina.

2.- El Ayuntamiento de Hondarribia, señala que para poder desarrollar esta idea los promotores deberán cumplir con toda la tramitación administrativa que les corresponda conforme a la normativa, al igual que el resto de la ciudadanía.

3.- El Ayuntamiento de Hondarribia quiere reafirmar su compromiso con el fomento del comercio urbano y mostrar su firme voluntad de seguir hacia adelante como viene colaborando con el sector en los últimos años”.

Examinadas las propuestas, se ha procedido a la votación de las mismas.

En primer lugar, se ha sometido a votación la propuesta presentada por los grupos municipales Abotsanitz, EH Bildu y PSE-EE-PSOE mediante escrito de 19 de diciembre de 2019, RE nº 9430, y cuyo resultado ha sido de ocho votos a favor y nueve en contra.

Votan a favor: D. Igor Enparan Araneta, D^a Guadalupe Queiruga Oronoz, D^a Estitxu Urtizberea Sorzabal, D. Aitzol Arroyo Tumas, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, D^a Maria Noemi Odriozola Pascual, D. Xabier Isasi Balanzategui y D. Xabier Bengoetxea Erriondo.



Aurka bozkatu dute: Txomin Sagarzazu Ancisar, Juan María Altuna Muñoa, María Serrano Olascoaga, Juan Luis Silanes Aguirre, Gotzone Larrarte Campandegui, Gonzalo Carrión Insausti, Edurne Etxeburu Eguia, Arantzazu Rojo Gómez eta Silvia Emazabel Felce jaun-andreek.

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU**: Abotsanitz, EH Bildu eta PSE-EE-PSOE udal taldeek 2019ko abenduaren 19ko 9430 SE zkiko idatzi bidez aurkeztutako proposamena ez onartzea.

Bigarrenik, EAJ udal taldeak 2019ko abenduaren 19ko 9441 SE zkiko idatzi bidez aurkeztutako proposamena bozkatu da, bozketaren emaitza aldeko bederatzi botokoa eta aurkako zortzikoa izanik.

Alde bozkatu dute: Txomin Sagarzazu Ancisar, Juan María Altuna Muñoa, María Serrano Olascoaga, Juan Luis Silanes Aguirre, Gotzone Larrarte Campandegui, Gonzalo Carrión Insausti, Edurne Etxeburu Eguia, Arantzazu Rojo Gómez eta Silvia Emazabel Felce jaun-andreek.

Aurka bozkatu dute: Igor Enparan Araneta, Guadalupe Queiruga Oronoz, Estitxu Urtizberea Sorzabal, Aitzol Arroyo Tumas, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, Maria Noemi Odriozola Pascual, Xabier Isasi Balanzategui eta Xabier Bengoetxea Erriondo jaun-andreek.

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU**:

LEHENENGO.-EAJ udal taldeak 2019ko abenduaren 19ko 9441 SE zkiko idatzi bidez aurkeztutako proposamena onartzea.

BIGARREN.-Zaldunborda Gaina eremuan jarduera ekonomikoak sustatzeko, lanpostuen sorrera bultzatzeko eta kutsatutako atala garbitzeko planteamendua positibotzat jotzea.

HIRUGARREN.-Idea hori garatu ahal izateko sustatzaileek egin beharreko administrazio-

Votan en contra: D. Txomin Sagarzazu Ancisar, D. Juan María Altuna Muñoa, D^a María Serrano Olascoaga, D. Juan Luis Silanes Aguirre, D^a Gotzone Larrarte Campandegui, D. Gonzalo Carrión Insausti, D^a Edurne Etxeburu Eguia, D^a Arantzazu Rojo Gómez y D^a Silvia Emazabel Felce.

En consecuencia, **el Ayuntamiento Pleno**, por mayoría, **ACUERDA**: desestimar la propuesta presentada por los grupos municipales Abotsanitz, EH Bildu y PSE-EE-PSOE mediante escrito de 19 de diciembre de 2019, RE nº 9430.

En segundo lugar, se ha sometido a votación la propuesta presentada por el grupo municipal PNV mediante escrito de 19 de diciembre de 2019, RE nº 9441, y cuyo resultado ha sido de nueve votos a favor y ocho en contra.

Votan a favor: D. Txomin Sagarzazu Ancisar, D. Juan María Altuna Muñoa, D^a María Serrano Olascoaga, D. Juan Luis Silanes Aguirre, D^a Gotzone Larrarte Campandegui, D. Gonzalo Carrión Insausti, D^a Edurne Etxeburu Eguia, D^a Arantzazu Rojo Gómez y D^a Silvia Emazabel Felce.

Votan en contra: D. Igor Enparan Araneta, D^a Guadalupe Queiruga Oronoz, D^a Estitxu Urtizberea Sorzabal, D. Aitzol Arroyo Tumas, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, D^a Maria Noemi Odriozola Pascual, D. Xabier Isasi Balanzategui y D. Xabier Bengoetxea Erriondo.

En consecuencia, **el Ayuntamiento Pleno**, por mayoría, **ACUERDA**:

PRIMERO.-Estimar la propuesta presentada por el grupo municipal PNV mediante escrito de 19 de diciembre de 2019, RE nº 9441.

SEGUNDO.- Valorar positivamente el planteamiento de promoción de actividades económicas, creación de puestos de trabajo y limpieza del área contaminada en Zaldunborda Gaina.

TERCERO.- Indicar que toda la tramitación administrativa que los promotores deban realizar



tramitazio guztia beste herritar guztiek bezala araudiaren arabera bete beharko dutela adieraztea.

LAUGARREN.- Hiriko merkataritza sustatzeko konpromisoa berrestea, eta sektorearekin lankidetzan azken urteotan aritu den bezala, aurrera begira jarraitzeko asmo irmoa agertzea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du hemeretziak eta berrogeita bostean, neuk ziurtatzen dudana akta hau eginez. Elektronikoki sinatuta agiria.

**OE/ Vº Bº
ALKATEA/El Alcalde**

para el desarrollo de esta idea deberá ser cumplimentada de acuerdo con la normativa, al igual que el resto de la ciudadanía.

CUARTO.- Ratificar su compromiso con el fomento del comercio urbano y mostrar su firme voluntad de seguir hacia adelante como viene colaborando con el sector en los últimos años.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la presidencia levantó la sesión a las diecinueve horas y cuarenta y cinco minutos, extendiéndose esta acta que certifico. Documento firmado electrónicamente.